



ttipi-ttapa

TOKIKOM

www.ttipi.net



Beñat TXOPERENA
Profesionalerara salto
egiteko prest
→ 36

2013ko martxoaren 28a | XXXIII. urtea | 587. zenbakia

Hondakinak

Transferentzia gunea → 18

BERA → 12

Udal aurrekontua
ahobatez onartua

SALDIAS → 21

Aritz Juaneneak debuta
eginen du erremontean

LEITZA → 26

Maxurrenea herrintzat
eskatu dute berri ere

BAZTAN → 30

Ernesto Prat-ekin
elkartasun manifestazioa



Sarako Idazleen Biltzarrak XXX. edizioa ospatuko du aurten Bazko astelehenean

Argitaratu berri diren liburu eta diskoak bildu eta irakurleei zabaltzea du helburu Idazleen Biltzarrak. Goiz arratsaldez bilduko dira Sarako Kirolegian idazle eta irakurleak eta arratsaldeko hiruretatik goiti hainbat titulu berriren aurkezpenak eginen dituzte. Azkeneko urteetan bezala, Euskaltzaindiak ere hainbat liburu aurkeztuko ditu. → 32

MAHAI-INGURUA | Baratzeak eta kontsumoa

ERREPORTAJEA → 4-5

Baratzegintza, kontsumoa, autoenplegua

Ezkerretik eskuinera
Izaskun Abril, Xabier
Artola, Jon Elizetxe
eta Joseba Urrotz



Idea eta ekimen
berriak lantzen



ELKARRIZKETA → 3

Goizuetako suhiltzaile boluntarioak

Anbulantzia zerbitzuaz behartzen dira gehien. Hortan, herriaren kokapenak badu zerikusia.

MUS ETA MUSIKA

Xorroxin, Xaloa eta Ttipi-Ttaparen alde

Sunbillako Ulibeltzak Elkartean jokatu da mus txapelketaren finala apirilaren 6an. Apirilaren 13an, berriz, kontzertu bikaina izanen da Lur aretoan → 11

ZOKKETAK → 2



Txartela egiteko
deitu 948 63 54 58ra

BERAKO AGENDA

apirila

6 larunbata
ESCENA DANTZA JAIALDIA:
"Suite Navarre" (Aldanza)
 20:00 · Kultur Etxean · Sarrera: 6€
 Antolatzailea: Nafarroako Gobernua

7 igandea
XXXVI. FELIX ERRANDONEA MEMORIALA JUNIOR KATEGORIA
 Euskal Herriko trofeorako puntuagarria
 10:30 · Irteera Eztegaratik

13 larunbata
PIRRITX, PORROTX eta MARIMOTOTS "Sentitu, pentsatu, ekin!"
 17:00 · Eztegara pilotalekuan · Sarrera: 7€
 Antolatzailea: Labiaga Ikastola

14 igandea
IX. BERAKO MENDI MARATOI ERDIA • EGITARAUA:
 Dortsalen banaketa: Apirilak 13 · 17:00-18:00 | Apirilak 14 · 8:00-9:00
 9:30 · Irteera | 11:10 · Lehen sailkatua helmugan
 12:50 · Azken sailkatua helmugan | 13:30 · Sari banaketa eta oparien zozketa
 Argibideak: www.mantale.com

18 ortzeguna
Argindarra, gasa eta telefonoa: konpainiak, kontratu motak eta fakturak (Iracheko teknikariak) · 18:00 · Beralandetan
 Antolatzailea: Arkupeak

20 larunbata
Euskara Bortziriletan, GOGOETA PROZESUA
 Guztientzat irekia · 10:00-14:00
 Toki Ona Institutuan

20 larunbata
BatBIRALau Euskal Kulturaren Nafarroako Zirkuitua KONTZERTUA: Ruper Ordorika
 22:00 · Kultur Etxean · Sarrera: 8€
 Antolatzailea: Topagunea
 Laguntzailea: Berako Kultur Batzordea

27 larunbata
BERA KANTARI
 19:00 · Illeketan

25 ortzeguna
LIBURU EGUNAREN OSPAKIZUNA
LIBURU AURKEZPENA: "Alkasoroko Benta" (Mikel Taberna)
 18:00 · Liburutegian

26 ortzirla
IRRIPUINAK Marikalanbrerekin
 3-8 urte · 18:00 · Liburutegian

Ekitzekien gainerako informazio gehiago: 012 telefonoan edo www.berakoudala.net

deskontuak

BERAUTO
 RENAULT
 BERA | %5 errekanbioetan

LESAKA
 %10 lantzerian
Kattalingorri arropa denda
 ELIZONDO | %10eko deskontua

POTTOKI
 ELIZONDO
 %5 oparitzeko artikulu txikietan

FOTO MENA ELIZONDO
 ELIZONDO | %10 kopia digitaletan

Alustiza
 DONEZTEBE
 %10, 30€tik gorako gastuan

ttipi txartela **ttipi txartelarekin beti irabazten da!**

zozketak

KAMISETA BAT
 Onddo ta punto
www.onddotapunto.com

3 LIBURU
 Txalaparta argitaletxea
www.txalaparta.com

MUSIKA CDa
 Kabxiporreta
www.Kabxiporreta.com

AQUARIUM 2 SARRERA
 Donostiako Aquarium-a
www.aquariumss.com

2 LIBURU
 Erein argitaletxea
www.erein.com

DVD+CD
 Lanku
www.lanku.com

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

586. ALEKO IRABAZLEAK

* **NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO 2 SARRERA:**
 Xelmi Unanua | GARTZAIN
 Maite Irigoien | AMAIUR

* **AQUARIUM 2 SARRERA**
 Josetxo Olaetxea | LESAKA

* **EREIN 3 LIBURU**
 Fermina Etxart | URDAZUBI
 Mertxe Santesteban | ETXALAR
 Martina Zelaia | IRURITA

* **ONDDO TA PUNTO KAMISETA**
 Jose Ignacio Tomasena | ETXALAR

* **ESTANKONA CD**
 Isabel Arretxea | ELIZONDO

* **LANKU LIBURUA + DVD**
 Ana Launagarai | ELIZONDO

Profesionalen pareko lana egiten dute, baina esker ona da trukean lortzen duten txanpona. 1996an hogeitahirutarrek osatu zuten Goizuetako suhiltzaile boluntarioen

taldea. Hogeita hamar dira orain eta taldean sartzeko esperoan dauden zerrenda luzea da. Berriki Nafarroako Gobernuak oroigarri bat eman die azken urtean egin

duten lanagatik. Dagoeneko hamaika sute, anbulantzia zerbitzu, galdutako mendizale... hartatu dituzte. Herrian eta herriaren-tzat lanean segiko dute etorkizunean ere.

Ibon ELIZEGI | Goizuetako suhiltzaile boluntarioa

«Taldean sartzeko baldintza bakarria laguntzeko borondatea edukitzea da»

E. IRAOLA

Zergatik sortu zen boluntarioen taldea?

Garai batean sute bat izaten zenean, auzolanean itzaltzen zen. 1996an ordea, mendiko sute batean neska bat hil zen eta horrek behar bat utzi zuen agerian. Neurri batzuk hartu behar zirela erabaki zuen udalak eta herri mailan talde bat sortzea erabaki zen. Goizuetarron artean dei bat egin eta Nafarroako Gobernuarekin eta suhiltzaileekin hitzarmen bat sinatu zen. Ikastaroak jaso, parkea sortu, kamioia ekarri eta hogeitahirutarren taldea hasi ginen lanean.

Nork osatzen duzue taldea?

Hogeita hamar herritar gabilta orain. Hamasei suhiltzaile lanean eta hamalau anbulantziarekin. Taldean gutxi batzuk gara lanbidez suhiltzaileak. Irakasleak, etxeko andreak, lantegi eta erakuntzakoak... arlo eta adin desberdinetako jendea elkartu gara. Taldean sartzeko baldintza bakarria laguntzeko borondatea edukitzea da.

Prestakuntzarik jasozten duzue?

Hilabetean azkeneko asteburu guztietan praktikak egiten ditugu profesionalekin. Horretaz gain, anbulantzian ibiltzeko urte beteko ikastaro berezia egin behar da titulua ateratzeko.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Ibon Elizegi, hasiera hasieratik Goizuetako suhiltzaile boluntarioen taldeko kidea da.

Hasiera hartatik zertan aldatu da taldea?

Gehienbat baliabide aldetik. Hasi ginenean, hogeitahirutarren, hamar suhiltzaile jantzi ekarri zizkiguten. Kamioi eta Land Rover zahar zaharrek inbilitzen ginen hara eta hona. Mugikorrik ere ez genuen eta etxera deitzen ziguten larrialdi zerbitzuetatik. Suhiltzaile parkera iristen zen lehenak herri guztian entzuten zen sirena bat jotzen zuen. Orain berriz, 30 lagun gara taldean eta bakoitzak badugu gure jantzi eta ekipo guztia. Nafarroako suhiltzaile boluntario guztien artean, anbulantzia dugun ba-

ERANTZUNA

«Eskerrak emanez etortzen zaizkigu aunitzetan, nahiz eta ez duten hori egin beharrik. Barrendik ateratzen zaiela ikusten duzu eta hori oso polita da. Gertatu izan zaigu pertsona bat larri ospitalera eramatea eta sendatu denean, gure laguntza eskertzeko suhiltzaile boluntarioen taldean sartu nahi izatea.»

karrak gara. Teknologia berrien eraginez, larrialdi bat gertatzen denean, guztioi aldi berean mezu bat iristen zaigu mugikorrera. Norbait beti erantzungo dio deiari. Azken urtean 70 bat interbentzio egin ditugu.

Zer motatako irteerak izan dira?

Erdiak baino gehiago anbulantzia zerbitzuak izan dira. Trasladoak, erreskateak... Goizuetan adineko jende asko dago eta kokapenagatik zerbitzua oso baliagarria da. Goizuetara Hernani aldetik ere txirindulari pila bat etortzen da. Urtero izaten dira udan

lauzpabost zapetekoren bat hartzen dutenak.

Taldean sartzeko zer egin behar da?

Ez da proba fisiko edo teoriko berezirik egin behar. Edonor sar liteke, baina afera da, taldeki-kopurua mugatua dela. Suhiltzaile boluntario guztioi gaude aseguratuta eta Nafarroako Gobernuak aseguru kopuru zehatz bat ematen du. Norbait postua uzten duenean, berri bat sartzeko bere partez. Udaletxean dago jarria zerrenda eta jende asko dago esperoan.

Zein da boluntario izateak daukan saria?

Herritarren eguneroko keinu tikiak dira egon litezkeen sari hobereana. Gurea bezalako herri tiki batean guztioi eza gutzen dugu elkar, jendeak ikusi egiten du zein den gure egitekoa. Larrialdi egoera horietan, ezagutzen duzun norbaiti laguntzeko ari zara lanean. Gure herriari zerbitzu hau eskaintzea ere sari galanta da. Eskerrak emanez etortzen zaizkigu askotan, nahiz eta ez duten hori egin beharrik. Barrendik ateratzen zaiela ikusten duzu eta hori oso polita da. Gertatu izan zaigu, pertsona bat larri ospitalera eramatea eta sendatu denean, gure laguntza eskertzeko suhiltzaile boluntarioen taldean sartu nahi izatea.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Izaskun Abril, Xabier Artola, Jon Elizetxe eta Joseba Urrotzekin baratzeen inguruko solasaldia egin dugu.

GIZARTEA → BARATZEAN LANEAN

Bertako lurrak landu nahi dituzte, uzta oparoa baitago oraindik ereiteko

Baratzeak, autokontsumorako edo enplegurako guneak

Aisialdirako edo familietako errentak osatzeko. Geroz eta gehiago dira baratzea lantzeko asmoa dutenak. Baztanen elkarlanean ariko

dira herritarrak, Cederna-Garalur, Baztango Udala eta Barraskiloak elkarrekin. Lursaileri bizia emanda, eskualdeari ere bizia eman nahian.

Eneritz IRAOLA

Behin herritik hirira lan bila joan zirenak, atzera herrirako bidea hartu dute. Inguuruak eskaintzen dituen baliabideei etekina atera eta aurrera egiteko modua landu nahi dute. Horretarako lehen-gaia: lurra. Baratzeak lantzen hasiko dira bakoitzak helburu desberdinarekin: batzuk irtenbide profesional bezala,

bertzeak aisialdirako. Denek dute funtsean oinarri bera: eskura dugun horri zor zaion balioa ematea.

Baztan inguruan, mugimendu dezente nabari da azken aldian, horregatik, gaiaren ikuspegi zabalago bat jasotzeko Jon Elizetxe, Izaskun Abril, Xabier Artola eta Joseba Urrotzekin egin dugu hitzordua.

UDAL BARATZEAK

Baratze bat egin ahal izateko lehendabiziko pausoa lursaila lortzea da eta hori ez dago guztion eskura. Herritarren eskariari erantzunez, duela urte bete inguru, Baztango Udalak, Cederna-Garalurrekin elkarlanean, udal baratzeak sortzeko egitasmoa jarri zuen abian. «Eskaria aztertu, lursaila topa-

tu eta adostasun osoz onartu ditugu ordenantzak» azaldu digu Jon Elizetxek. Hasierako asmoetan murrizketek eragina izanen dute ordea «azpiegitura aldetik egin beharreko hobekuntzak Nafarroako Gobernuak ematen dituen diru laguntzekin egin nahi ziren, zoritxarrez laguntza gabe utzi gaituzte, datorren urtean ere ez dute emango, horregatik gabilza orain zer egin pentsatzen. Pista bederen konpondu ahal izateko».

Baratze sozial eta ekologikoak izanen dira, autokontsumorako bideratuak «ezin da etekin ekonomikorik atera». Urtean 40 euro ordainduta, lur-zati bat erabiltzeko eskubidea lortuko du emakidak.

AHOLKUAK ETA FORMAKUNTZA

Asko izan dira azken aldian baratze baten bueltan eraikitako ideien batekin Izaskun Abriren

DATUA

50

PERTSONEK

eman dute izena Baztango Udal Baratze Sozial eta Ekologikoen proiektuan

DATUA

Euskal Herrian kontsumitzen ditugun produktuen

%10

ekoizten dugu bertan

atea jo dutenak. Pertsona hauei laguntzeko asmoz, «abiapuntu bezala formakuntza saioak eskaini nahiko genizkieke, saio horietan jendearen beharrak, asmoak... agerian gertzen direlako» erran digu. Baratze batetik lanpostu bat sortzeko «hiru hektareako eremua behar da eta lur hori ez duenak eskuratzea zaila da». Horregatik, «nekazaritzarako egokiak izan eta erabiltzen ez diren lurrekin akordioak egiteko» ahalegina egin beharko litzatekeela dio. Baratze gintzan lehenengo pausoa eman nahi dituztenentzat Baztango baratze sozialaren aukera «oso baliagarria» iruditzen zaio.

OHITURA ALDAKETAK

Baratzeak lantzen hasita, kontsumo eta ekoizpen moduak aldatzeko bideak landu litezkeela uste dute Xabier Artola eta Joseba Urrotzek «hemen ekoiztu eta bertako kontsumitzen bada, eredu aldaketa martxan jarriko da. Hori da bidea, gure lurrek badutela zer emana».

JON ELIZETXE, BAZTANGO UDALEKO ZINEGOTZIA

«Herrian ditugun lurrei probetxua ateratzeko modua dira baratzeak»

Baztango Udalak baratze sozial eta ekologikoak jartzeko proiektua du esku artean «lurrik ez duenari, bere produktua lantzeko aukera emateko» erran digu Jon Elizetxek. Batzuk aisialdirako bideratuko dituzte baratzeak, baina zenbaitentzat «familien sostengurako bidea izan dira, auto-kontsumorako elikagaiak lortuko dituztelako». Baratze hauekin «herrian ditugun lurrei probetxua» atera eta belaunaldiaren arteko transmisio ere bultzatuko da Elizetxeren ustez «ilargien afera, noiz erein behar den, noiz bildu behar den... kontrolatzen duten pertsonak dauzkagu inguruan, hori altxor bat da eta baratzeek jakintza hori zabaltzen lagunduko du-



Jon ELIZETXE

te». Jendeari «bertzelako ekoizpen eta kontsumo mota bat jarriko zaio eskura» horrela, «kontzientzia aldaketa bat» ere bultzatu nahi dute. Eredu berri bat eraikitzea beharrezkotzat jotzen dute, «lurrak sasiz beteta egon eta kanpotik erostea ez da irtenbidea».

IZASKUN ABRIL, CEDERNA-GARALURREKO GARAPEN AGENTEA

«Gure lurriari eta ekoizten dugunari balio erantsia ematea da gakoa»»

Azken urteetan lan aukerak desagertzen ari direla ikusita, jendea «bertze ereduen bila» hasi dela nabaritu du Izaskun Abriek, «lehen sektorean lanean hastea planteatzen du orain aunitzek». Pauso hori eman nahi dutenei laguntza eskaintzen die Cederna-Garalurrek, proiektuak bideratu eta formakuntza eskainiz «ikastaroetan jendearen beharrak ateratzen dira, ikuspegi zabalago batekin ikusten dute gaia eta abiapuntua izaten da jendeari bultzada bat emateko». Aldaketa eman dadin «gure lurriari eta ekoizten dugunari balio erantsia ematea da gakoa» Abriren erranetan. Baratze landutabakarik ez da bidea egiten ordea, ekoizten dena kontsumi-



Izaskun ABRIL

tzen denarekin lotu behar da «elkarlana baldin badago bakarrik izanen dira proiektu hauek bideragarriak». Baratzeetatik hasita, aurrera pauso handiak eman litezkeela uste du «urrats ttikiak emanez, ttiki aunitzek, gure eskualdeari bultzada ematea lortu liteke».

JOSEBA URROTZ, BARATZEA LANTZEN ARI DA

«Ikusi dugu eredu honek huts egin duela aldatzeko garaia da»

Etxe inguruan dituzten alorrrak lantzen hasi dira berriki Joseba Urrotz eta bere bikotea «eskura genuen lurriari aterabide ekonomiko bat» emateko helburuarekin. Bide berri honetan, garai bateko nekazaritza eredu hartu dute oinarri «azken urteetan nekazariak gurpil zoro batean sartuak daudela uste dut, inbertsio handiak egin, produzitu aunitz, koste baxuetan... ikusi da ez duela funtzionatzen». Eraldaketa bat egon dadin pausoak pixkanaka egin behar dela dio «hurbileko bideak hartu behar dira, kontsumo elkarte eta sareak indartu eta gure kasuan salmenta zuzena bultzatu». Urrotzek dio salneurrien afera sartzan dela hor jokoan «produk-



Joseba URROTZ

tu ekologikoak garestiak iruditzen zaizkie batzuei, horrek atzetik duen lana azaldu eta erakutsi beharko litzaioke agian». Epe luzera, denontzat mesedegarria dela uste du «elkagai osasuntsuak kontsumitzeaz gain, gure herrian eta gure herriarentzat lanean ari baikara».

XABIER ARTOLA, BARRASKILOAK ELKARTEKO IDAZKARIA

«Hurbileko kontsumoa eta ekoizpena elkarrekin landu behar dira»

Barraskiloak kontsumitzailer elkartearen ustez, azken urteetan nekazaritza eredu oker bat bultzatu da «teknologia garatzeko egin dira ahalegin guztiak, ekoizten denaren kalitateari begiratu beharrean, kantitateari erreparatu». Iragana eta oraina lotzen dituen bidea erai ki behar dela uste du «garai bateko naturarekiko harremana, aurrekuntza teknologikoekin uztartuz». Artolaren erranetan «geroz eta gehiago dira bertan kontsumitzeko apustua egin eta nekazaritza ekologikoa bultzatzen dutenak». Hala ere, Kontsumoa egon ahal izateko, ekoizpena ere beharrezkoa dela gaineratzen du «ez du zentzurik bertako kontsumo bat eskatzeak, inork ekoizten ez



Xabier ARTOLA

badu». Norberak lan hori egiteak erosteko modua aldatu dezakeela uste du, «beste balio bat ematen zaio produktuari eta atzean dagoen lana» izaten du gogoan erosleak «itxura hain perfektua ez duen azenarioak, gure baratze tipula ekartzen digulako gogora».





Nire txanda
Beñardo GOIETXE

Gure altxorra

Ez da soilik xakur, katu, txori, landare, haur, aitaxi-amatxi edo irakasleekin aritzeko. Ez da *Korrika*, *Herri Urrats* edo *Nafarroa Oinez* bezalako besta egunetan janzteko traje edo soinekoa, luzitu ondoren berriz armairuko zoko-usainetan geldituko dena. Ez da hainbat lagunarte eta familian hondatzen utzitako solas ohituraren txip konponezina. Ez da ideia politiko, diru, erlijio, zaletasun edo arrazagatik bereizteko zernahi. Ez da, batzuek nahi bezala, museo baten bitrinan bere gisa uzteko liburu xahar horitua. Ez da erakunde edo alderdi bakarraren labeldun produktu salgarri miresgarria. Horiek guziak baino anitzez gehiago da: ahal guzietan mintzatzea, irakurtzea, kantatzea, ikastea, hobetzea, bizitzea, gozatzea, zaintzea, laguntzea eta bultzatzea merezi duen denon altxor xarmagarria da, antzinakoengandik harturiko urre gorririk baliotsuena, nehongo lapur esku-zuri eta ezjakinek ebatsiko ez digutena.

«Ez da museo baten bitrinan bere gisa uzteko liburu xahar horitua»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Igeltsero izan nahi dut

Yo quiero ser torero zioen gazte denborako udako kanta horietako baten bertsioa karrikaratu berri du Barcina andereak burduntzalia diru-saldan sartuta harrapatu dutenean: *Yo quiero ser igeltsero*. Alegia, edozein *alikatadorek* berak adina kobratzen zuela eta autorik dotoreenak beraiek gidatzen zituztela. Ez dut oraindik diru hori bueltatuko duen igeltserorik ezagutzen. Zergatik ote da?

Nabarmentzekoak



Olatz ROJO LARRALDE
Lesakako musika banda

Emakumearen Eguna-ren harira egindako emanaldian, Lesakako Musika bandaren zuzendari-makila hartu zuen. 156 urteko historian banda lehen aldiz gidatu duen emakumea.



Ane PETRIRENA INSAUSTI
Espainiako txapeldun

16 urterekin, lehenbiziko urtea du jubenil mailan, baina halere Espainiako pista estaliko 200 metroko txapelketa irabazi du. Martxoaren 3an lortu zuen garaipena Antequera (Malaga).



Carlos ESKUDERO
101 urteko goizuetarra

Gaztetatik bizimodua Gipuzkoaldean egin badu ere, Kaperottikin sortutakoak 101 urte bete zituen martxoaren 8an. Emaztea, semea, alaba, 5 biloba eta 2 birbilobekin ospatu zuen.

Atzera begira → 2003.04.03 / TTIPI-TTAPA 347 zbk.



Adinekoen gimnasia: sasoia urteak haina

Arkupeak elkarteak urtero egiten duen gimnasia besta aitzaki hartuta, gure inguruan gimnasia egiten zuten adinekoengana jo zuen TTIPI-TTAPAK duela hamar urte, *Adinekoen gimnasia: Sasoia urteak haina* izenburupean. Izan ere, egun bakarreko erakustaldi horren gibelean, urte osoko lana izaten baita. «Gure martxa ikusiz animatu da jendea» aipatu zigun Pilar Irazoki beratarrek; «Gorputzarentzat ona da, dudik gabe» zioen Sunbillako Maritxu Zubietak; «Yoga gimnasia baino lasaigoa da» adierazi zigun Doneztebeko Isabel Mitxelorenak. Izan ere, emakumeak ziren gimnasia aritzen ziren gehienak.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itxaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Martin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztexea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria40€	Europa59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka34€
Ipar Euskal Herria59,50€	Amerika eta Australia124€	Leitza17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako adizkaria



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Burua baikorregia

Juainas PAUL ARZAK

Baikorregia azaltzea lotsa moduko zera bat sortzen dit. Ez dakit zer den... Batzuetan, hola, bapatean argia ikusteko aukera izanen bagenu bezala: Ez ta possible!, xuxurlatzen diot buruari, eta, temosoegia baldin badago telebista ala irratia piztu. Listo. Beti, ia beti, gehienetan, normalean, ohiko zaharberri horietako bat dago. Adibide aukeran, jarri zuk iduritzen zaizuna, edozein alorrekoa –politikoa, soziala, ekonomikoa...-. Agian kirolaren mundukoa? Zuk ikusi. Total. Gauzak bere tokira datoz. Betikoan gaude.

Baina, ordea,... Hilabete bat pasia izanen da, bost bat aste? Irakurri nuen Erreterian, Oretetan edo Erretereri-Oretetan Bilduko Julen Mendoza alkateak zeregin bitxietan ari zela, sozialista eta peperuekin harremanak hurbiltzen, elkarrekin bazkaltzen, hitz egiten... Galantak ikusteko jaiok gara! Eta hori gutti balitz bezala, elkarrekin pelikulak ikusten aritu omen ziren. Zine politikoa! Angel Amigok, Mireia Gabilondok eta Gorka Espiauk sortutako filmak.

Zurrunbilo antzeko bat piztu zitzaidan. Hemen-dik aurrera hau normala izanen balitz? Aitortuko bagenu besteak ere bi begikoak direla? De-abru adarrik gabekoak? Uy-uy-uyui ama, esan

nion nereari. Eta berriro: Ez ta possible! Gero, egun hartan eta hurrengoetan, politikoez muturka dialektikoan, goikoez behekoak hankapin hartzen ikusita, ez dakit, hola, lasaixeago gelditu nintzen, zeren, imajinatu: ezustean mundua konponduko balitz? A ze ikarea! Ez niri esan! Puskaz normala goa da Barcina bere azalpen sendoak ematen ikustea, gero alderdiaren lehendakaritzarekin sarituko dutela; Barcnas kobratu duenaren argibideak Cospedalek plazaratuak...Behar bada, duda batekin gelditu naiz: Euskalerrira Irratikoaren manifestazio egunean erori zen euri jakak zer erakusten du? Jaungoikoa UPN ala PSNkoa da? Franzisko/Patxi Aita Santuari galdetu beharko!

Makurrena da, dena den, dudamudak berriro pizten zaizkidala. Martxoaren 15ean, Donezteben, Bertha Gaztelumendiren dokumentala ikusi nuen. *Mariposas en el hierro* delakoa. Ederra, benetan. Kolore guztietako emakume sendoak, abegikorrek, giza eskubideen babesleak... Bide horretatik konponduko bagina? Utikan!

Eskerrak ikusi ahal izan nuela Euskadiko parlamentuaren antzerkia, Bakearen Lantaldeko oztopatze baliagarria,... Konpondu ala irabazi? Gaur, telebistan, *Memorias de un conspirador* ikusteko asmoa dut. Kontatuko dizut, behar bada.

«Hemendik aurrera hau normala balitz? Aitortuko bagenu besteak ere bi begikoak direla? Deabru adarrik gabekoak?»

Ipuin txinatarra

Luis GARDE

Txinatarra da bazter honetan jorratuko dudan kontua, baina inolaz ere ipuina, errealitate gordina baita. Egia erran, guretako askok Txinatik ezagutzen duguna *todo a cien* dendak eta beren salgai merkeetara murrizten da. Horrekin batera, hedabideetan tarteka agertzen da Txina izaten ari den garapen ekonomiko azeleratua. Imajina dezagun higiezin burbuila erraldoi bat; urte hauetako depresioa eragin duena baino higitzez handiagoa; Estatu espainarrean lehertu zena halako hoge, halako berrogei... Kalkulaezina, burbuila hori Txinaren eskalan eginga baita, Txinaren populazioaren (1.400 milioi biztanlearen) eta ekonomiaren (aurki munduko lehenengoaren) eskalan eginga alegia.

Duela hamabortz urte, hango gobernuak, komunistatik izena baizik ez duenak, txinatar bakoitzak bere etxebizitzaren jabe izan behar zuela erabaki zuen. Teoriaz ez dago gaizki. Kalkulatu zutenez, 400 milioi hiritarrek herrietatik hirietarat eta barneko lantetatik itsasertzerat aldatuko ziren. Proiektu honen ondorioz, erakuntzaren negozioko egundoko hazkundera izan du. Gaurko emaitza: urbanizazio hutsak, dozenaka hiri fantasma. Hemen bezala? Ez, erran bezala, eskala erraldoian: urtero dozena bat edo bi hiri berri eraikitzen dira.

Familia txinatar aunitzek hiru belaunalditako aurrezkiak sartu dituzte higiezin merkatuan; 50 milioi langile aritzen dira alorrean; hala ere, hiritar gehienek ez dute irabazten etxebizitza bat erosteko diru aski. Herrialde europarrek ez bezala, Txinak ez dauka altzairuaren eta hormigoien teknologia aurretatua: eraikuntzen kalitatea hain kaxkarra da ezen bi urtetan higitz hondatuak geratzen diren; etxe habitagarriak egitea gutxienekoa baita. Helburua da, noski, dirutza handiak “ezeretik” sortzea. Horrekin guztiarekin batera, izugarrizko azpiegiturak, autobide hutsak.

Ezaguna, ezta? Diru-gosea edonon. Higiezin burbuila ez da bakarrik gure artean gertatu, baina oraindik Txinan puzten ari den burbuila erraldoi lehertzen denean... izanen dugu lurrikara sumatzeko tenorea.

«Urtero dozena bat edo bi hiri berri eraikitzen dira. Familia txinatar aunitzek hiru belaunalditako aurrezkiak sartu dituzte higiezin merkatuan; 50 milioi langile aritzen dira alorrean; hala ere, hiritar gehienek ez dute irabazten etxebizitza erosteko diru aski»

Irakurleak mintzo

Udaletxearen erantzuna Idoiari

Julian GOGORZA JAUREGI
(Ezurrako udaleko "bazkide" guztien izenean)

Idazkiak zure barruko ezongia eta amorrua adierazten du. Horren gainetik, ez genuen zuri erantzuteko asmorik. Duzun arrazoi puxka, eskutitza idazteko erabili duzun moduak kentzen dizu. Herritar askok deitu digute esanez espero dutela guk erantzun bat ematea.

Zepen! zure idazkiaren gauza bat gezurra ez bazen errespetu falta zen, eta errespetu falta ez bazen desinformazioa zen, eta desinformazioa ez bazen datu nahasketa zen... eta horrela segitzen ahal dugu bihar arte. Baina tira..., zer eginen diogu!

Puntu batzuk argitu nahi dizkizugu:

- Bi bilera izan ditugu udaletxean eskolari buruz hitzegiteko, eta zu ez zara bakar bateara azaldu. Zure informazioarako esan nahi dizugu, izan genuen bigarren bileran eskolari buruzko hainbat informazio eman eta bere egoeraren argazkiak erakutsi zirela. Laburtuz, bilera oso interesgarria izandu zen eta bertan proposamen ezberdinak egin ziren.

- Zu falta zinen bigarren bilera horretan ez zen esan teiltatua arreglatzeko dirurik ez zegoenik, baizik eta esko-

la guztia -kanpotik eta barrutik- arreglatzeko dirurik ez zegoela.

- Zu falta zinen bigarren bilera horretan, erabaki zen galdeketa bat egitea herritarrei proposamen ezberdinak jasotzeko. Galdeketa horri erantzuteko bete behar zen baldintza, bertan erroldatua izatea zen. Hortik NANA eta beste datuak eskatzearen zergatia. Datu gehiago: badakizu milaka proposamen izaten ahal diren horietatik zenbat pertsonak egin zituzten proposamenak? Guk esanen dizugu: zu barne lau pertsonak, eta horietako bat pisuak egin eta saltzearen aldekoa zen.

- Zu falta zinen bigarren bilera horretan, momentuz eskolari teiltatua arreglatu eta kanpoko itxura berritu behar zitzaioela esan zen.

- Zu falta zinen bigarren bilera horretan udaletxeak esan zuen, behoko solairuan ludoteka bat egiteko sibilitatea ongi legokela. Orduan, hori ez dugu hartuko zure proposamena bezala, udalarena bezala baizik. Dena den, pozik gaude horretan zuk ere gauza berarekin pentsatzen duzula jakitearekin.

- Zu falta zinen bigarren bilera horretan barruko lan batzuk auzolanez egiten ahal zirela aipatu zen. Animatezen zara? Inoiz ez da berandu...

- Obra guztiaren proiektu osoa 10.440€ ordaindu zen. Badakizuzue aurrerapena den pro-



Bota bertsoa

Ainhoa LARRETxea (Berako bertso eskola) • Neurria: Hamarreko haundia

Barcinaren dietak

Gobernu eta parlamentuan lapurrak jira ta bira sobreak eta dietak kobratuz egiten dute dizdira Herria ahaztu, berean segi horixe dute desira askoz hobeto kargua utzi eta joango balira Barcina eta bere kuadrila gure kontu aberats dira.

Hogei minutuz bileran egon mila eurokin atera urte luzetan ibili dira asko Barcinan antzera nahiz azkenean dirua itzuli kaltetuak gu irten gera bere burua justifikatzen ibili zaigu gainera behin eta berriz esango diot Barcina segi etxera.

iektua ordaindua izate? Badakizuzue edizio batean edo zer obra egiteko proiektu bat egin behar dela?

- Herria ostatu bat bakar dagoela eta solairu batean sozietate bat egitea proposatzen duzu. Udaletxeak sozietate bat irekitzea eskatzen duzu? Uste duzu udaletxe batek sozietate bat irekitzen ahal duela? Herri txiki batek baino gehiagok sinatuko luke herria dugun ostatu bezalako bat edukitzea beraien herria.

- Goiko kaleko bideari dagokionez, aspalditik geunden obra horren atzetik. Badakizuzue nola zegoen lehen goiko kaleko pareta? Bidea, kamioiek arazoak zituztelako goiko kalera joateko zabaldu zen eta baita ere mendiari eusten zioten paretak oso egoera txarrean zeudelako. Badakizuzue herriko batek traktorean jeisten zituela goiko kaleko baturak? Zer gertatuko litzateke sute batean ka-

mioiak ezin izango balarira pasatu? Badakizuzue zati bateko pareta erori eta arreglatu izan zela? Galdetu diezu goiko kaleko auzokoei beharrezkoa zen edo ez? Zenbat aldiz bisitatu duzu urte honetan goiko kalea? Badakizuzue proiektua eta beste gastu guztiak barne ia 130.000€ kostatu zela obra hori egitea eta dena ordainduta dagoela? Badakizuzue obra horriengatik Nafarroako Gobernuak 27.000€ zor dizkiola herriari eta diru hori herriak aurreratu diola enpresari? Kontuak ikusi nahi badituzue, etorri udaletxera.

- Subentzioak direla eta, ez dakit zure inguruan sufritzen ari zaren edo ez, dagoen krisia. Udaletxeak bai sufritzen ari garela! Badakizuzue nola dagoen subentzioen asuntua? Nahi duzue hurbildu udaletxera eta esplikatuko dizugu. Eta bai, dagoen krisia dela eta, harro gaude Ezurrako herriak zorrik

ez duelako. Eta zu? zu pozik zaude?

Herriaren alde lana egin nahi baduzu, bidean harrapatuko gaituzue. Zuretzat bakarrik borrokatu nahi baduzu, herriari bizkarra eman, orduan zaila izanen da elkar aurkitzea.

Elkartuko garelakoan, aio.

Hurrengo alea apirilaren 18an

[TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA](#)

Aste Santuaren atarian duzue esku artean martxoaren 28ko data daraman Ttipi-Ttaparen 587. ale hau eta jakinarazi nahi dizuegu hurrengo alea, 588. zenbakia, apirilaren 18ko datarekin argitaratuko dela. Hau da, bi asteren buruan jaso beharrean, hiru astera jasoko duzuela. Hortik aitzinera, abuztua bitartean, beti bezala hamabostero izanen gara zuekin.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Haziek badute gaitasuna leku guztietara moldatzeko, baina hazi komertzialek ez. Diseinu homogeneoa dute horiek, eta ezin dira zenbait baldintzatik kanpora moldatu. Tokian tokiko haziek baduten lekuan lekuko baldintzetara egokitzeko gaitasun hori, eta garrantzitsua da hori. Ondare bat da. Haziaren atzean badago historia bat: antzinako ohiturak...».

Edorta MURUA
Bertako Hazien Jaia
BERRIA 2013.02.23



«Euskalduna izateko, hizkuntzaz gain, bada beste sentimendu bat. Kaliforniara artzain joandako batek kontatu zidan lorategi enpresa bat ipini eta euskalduna zela iragarri zuenetik ez zitzaiola lanik falta izan. Haren bezereok ez zuten euskaraz mintzatzen zen pertsona bilatzen, euskal jarrera baizik. Euskalduna pertsona zintzo eta langilearekin identifikatzen zuten».

Iñaki PERURENA
Leitzako harrijasotzailea
AIZU, 2013.03

11 galdera labur

Pala garaiko oroitzapenik onena?

Ezagutu nuen jendea. Ni ez nintzen galdu edo irabazteagatik gehiegi larritzen eta horregatik, gozatu egin nuen palarekin.

Eta txarrena?

Lesioak. Belaunetakoak hiru-lau larriri izan nituen eta horietako bategatik utzi behar izan nuen pala.

Ezagutu duzun palistarik onena?

Oskar Insausti, dudarik gabe.

Bueltatuko ote dira noizbait palaren garai onak?

Dena zikloka doala esaten dute, baina zail ikusten dut buelta ematea.

Frontoira joaten zara oraindik?

Niri jokatzera gustatzen zitzaidan, baina ez horrenbeste ikustea. Ez naiz frontoira sekula azaltzen.

Iruña eta Ezkurra artean ibiltzen zara... Hiria edo herria, zer nahiago?

Biek. Iruñean nagoenean hemengo lasaitasuna eta berdetasuna nahi izaten ditut eta hemen nagoenean hango buila.

Ostatuan laguntzen aritzen zara... Pilotariarena baino ofizio zailagoa da?

Pilotariarena ofizio ederra da. Astean bi atsalde, entrenamenduren bat... Orain, neurria hartu behar zaio, denari bezala.

Zer bilatzen du Ezkurrara datorren turistak?

Lokalizazio ona du. Inguru naturala, mendia bilatzen duenarentzat egokia da, baina aldi berean hurbilean du itsasoa.

Zer falta zaio Ezkurrari?

Beharbada zerbitzuren bat edo beste, aparkatzeko lekuren bat edo, baina ez nuke gehiegi ukituko.

Kirola egiten segitzen duzu?

Niri mendian ibiltzea gustatzen zait, ez mendira igotzea, jeistea baizik. Bidean zer gauza dauden ikusi, garai bateko jendea nola bizi zen ikusi... bidean dago aberastasuna, ez kaxkoan.

Alde horretatik, mendi edo parajerik gogokoena?

Hemen paraje ederrak dauzkagu, asko oinez bakararra sartu daitezkeenak. Niri ura gustatzen zait, erre-

kak, ur jauziak... Gure petroleoa da ura.



Tito GOROSTIAGA → Ezkurrako palista ohia

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaillea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

udana
salazones
UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199
Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatu, erabiltzeko prest
Alkaiaga ind. · Banarta, 8 - 23 pabilioia · LESAKA · Tfnoa: 948 631 536 · Faxe: 948 631 550

Javier Manterola
Tehniko instalatzailea
iturgintza · gasa
kalefakzioa
Tfnoa: 629449602 · BERA

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

GIZARTEA

GIZARTEA → GOGOETA PROZESUA

Euskararen inguruan herritarrek duten iritzia jaso nahi dute Bortzirietan

Apirilaren 20an eta maiatzaren 4an elkartuko dira Beran

TTIPI-TTAPA

Zaindu maite duzun hori dio Ruper Ordorikak abesti batean, baina zaintzeaz gain euskara «erabili, garatu eta indartu» egin behar dela argi du Bortzirietako Euskara Mankomunitateak. Baina, normalizaziorako bidean zein pauso eman beharko lirateke?

Galdera horri erantzuteko asmoz, gogoeta saioak egingen dituzte bi larunbatetan, apirilaren 20an eta maiatzaren 4an. Berako Toki-Ona

institutuan elkartuko dira goizeko 10:00etatik 14:00etara. Lau taldetan banatuta, Elhuyar aholkularitzak gidatuko ditu saioak.

Saio irekiak izanen dira. Bortz herrietako elkarte, eragile eta herritarrek euskararen inguruan dituzten iritzi eta ekarpenak bildu nahi dituzte. Garaxi Tabernak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko ordezkariak azaldu digunez, «herritarrentzat egi-

«**Herritar guztien ekarpen eta iritziak dira interesgarriak eta baliagarriak. Aniztasun horrek aberastuko du gogoeta**»



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Urko Ikardo eta Garaxi Tabernak azaldu dizkigute gogoeta prozesuaren nondik norakoak.

ten dugu lan, horregatik, beraiei eman nahi diegu hitza». Gainera azpimarratu du gogoeta hauetan parte hartzeko ez dela beharrezkoa aditua izatea «herritar guztiak dira garrantzitsuak eta guztiak badute zer esan».

Urko Ikardok, Bortzirietako euskara teknikariak ere, gogoeta hauetan ahalik eta sektorerik zabalena parte hartzea garrantzitsua dela dio «aniztasun horrek aberastuko du gogoeta. Bakoitzak bere esparrutik,

euskarak zer ematen dion, euskarari zer ematen dion aztertu eta aitzinera begira zer egin beharko genukeen, noren esku dagoen... jakin dugu». Jasotako erantzunekin «gure etorkizuneko lan ildo nagusiak zehaztuko ditugu».

Azpimarratu dute «jendea hagitik gustora gelditu izan da halakotan parte hartu ondok» horregatik, mundu guztia animatu nahiko lukete. Jasoko den iritzi eta ekarpen bakoitza «euskarren mesederako baita».

1. SAIOA

Toki Ona Institutua
Ordua: 10:00-14:00

Gaiak:

Nola bizi dugu euskara herrian?
Euskararen egoera Bortzirietan: osasuntsu, eri?, non?, zertan?

2. SAIOA

Toki Ona Institutua
Ordua: 10:00-14:00

Gaiak:

Zer egin behar dugu etorkizunean euskararen normalizazioan pausoak emateko?

2013 / 2014 IKASTURTEA

TOKI ONA BHI | BERA - NAFARROA

LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK

INDUSTRIA MEKATRONIKAN
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

MANTENIMENDU ELEKTROMEKANIKOAN
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

AURREINSKRIPZIOA APIRILAREN 10etik 19ra | MATRIKULA UZTAILEAN

T. 948 625 000 | e-mail: iesbera@educacion.navarra.es | Web orria: http://iestokiona.educacion.navarra.es

GIZARTEA → APIRILAREN 6AN ETA 13AN, XORROXIN, XALOA ETA TTIPI-TTAPAREN ALDE

Mus txapelketaren finala eta kontzertu bikaina eskualdeko komunikabideen alde

Sunbillan eta Elizondon

TTIPI-TTAPA

Herriz herriko txapelketak jokatu ondotik, apirilaren 6an Sunbillako Ulibeltzak elkartearen jokatu dira Xaloa Telebistaren, Xorroxin Irratiaren eta Ttipi-Ttapa aldizkariaren aldeko mus txapelketaren azken partidak. Hain zuzen, herriz herrikoetan txapelkun izan diren bikoteek lortu dute Sunbillarako txartela.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Sunbillako Ulibeltzak elkarteak hartuko ditu mus txapelketaren finalak apirilaren 6an.

16:00etan izanen dute hitzordua Ulibeltzak elkartearen.

Krisi egoera orokorrean sartuta eta Nafarroako Gobernuaren di-

raguntzarik gabe, han eta hemen dirua lortu beharrean daude esku-

aldeko euskarazko komunikabideak ere. Honela, mus txapelketaz aparte, apirilaren 13an, musika kontzertu handia antolatu dute Berririk, Ttipi-Ttapa aldizkariak, Xaloa Telebistak, Xorroxin Irratiak eta Baztango euskalgintzak, Lur aretoaren laguntzarekin. Lur aretoan eskainiko dute emanaldia 22:00etatik aitzinera Pettik, Anje Duhaldek, Erramun Martikoren eta Amaia Zubiriak eta Edortak. Sarrerak 10 eurotan salgai daude.

bp
BERRIKI IREKIA

GASOLINDEGIA
DENDA | OGIA | PRENTSA
Ordutegia: 06:00-22:00 egunero
Zalain industrialdea | BERA | 948 630 249

BERA

UDAL AURREKONTUA → AHOBATEZ ONARTU DA

3.376.550 euroko aurrekontua izanen du aurten Udalak

Udal eraikinak berotzeko biomasako proiektua izanen da inbertsiorik handiena

TTIPI-TTAPA

3.376.550 euroko aurrekontua izanen du aurten Udalak, martxoaren 19ko batzarrean ahobatez onartu zenez. laz baino 157.000 gehiagoko aurrekontua da eta alde handiena inbertsiotan dago. 492.000 euro inguru joanen dira inbertsioetan.

Hain zuzen, aurten egin nahi diren inbertsioak energia aurrezteari begira prestatu dituzte. Handiena, udal eraikinak berotzeko biomasako proiektua da, 380.000 euroko inbertsioarekin. Eskola, ikastola, kiroldegia, haur eskola eta institutua berotzeko proiektu bat da. Premia handikoa dela aipatu digu Marisol Taberna alkateak «izan ere eraikin horietako galdarak hagitz zaharkituak daude, eta orain ez badugu zerbait egiten egunen batean *krak* egingen dute eta orduan izanen ditugu komeriak».

Eskola eta osasun zentroan leihoak ere aldatu nahi dituzte, 58.500 eta 13.500 euro inguruko inbertsioekin.

Herriko Etxe berrituan oraindik ez da ekipamendua osatu eta aurten artxibategiko altzariak erosi nahi dituzte, 12.000 euroko inbertsioarekin.

laz kanposantuan lan batzuk egin ziren eta horiek osatzeko, libre dagoen hilobi eskasia konpontzeko 5.000 euro inbertituko dira. Moldaketa lan tikiagoak ere egin nahi dituzte argiterian eta frontoian.

Aurten menditik 100.000 euro inguruko diru sarrerak espero dira eta horri esker orekatu ahal izan da aurrekontua. Baina heldu den urtean, seguru aski ez da horrelakorik izanen eta gerora, «egurra ateri ondotik, landaketak egin beharko ditugu eta Nafarroako Gobernuak aurten diru laguntza horiek murriztu dituela eta heldu den urteari begira kendu, panorama ez da erraxa».

Ba al zenekien...

Ricardo Baroja eskola, Eskola Positiboen Europa mailako proiektu batean sartu dela. Danimarka eta Italiako hiruna ikastetxerekin batera, Nafarroako bertze hiru ari dira proiektua lan-tzen, tartean herriko eskola publikoa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Konfidentzialtasunari buruzko saioa egin du Elkarrizan taldeak

Boluntarioen zerbitzua ahal den neurrian profesionalizatzeko helburuarekin, Elkarrizan taldeko boluntarioek konfidentzialtasunari buruzko saioa egin zuten martxoaren 14an Beralandetan, Mirentxu Goienetxe terapeutarekin batera. Pertsona bolondres hauek arlo pribatuan egiten dute lan (etxebizitzetan) eta zerbitzu hurbila eskaintzen dutenez (ospitaletara laguntza, zahar etxeetan...), hagitz informazio pribatua eta pertsonala jasotzen dute eta informazio hori nola kudeatu behar den jakiteko jarraibideak eta ereduak eman zitzaizkien.

Escena jaialdia eta pailazoak

Escena jaialdiko bigarren saioa ikusgai izanen da apirilaren 6an, 20:00etan Kultur Etxean. Aldanza taldeak *Suite Navarre* ikuskizuna taularatuko du.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen azken ikuskizuna, *Sentitu, pentsatu, ekin!* ikusgai izanen da apirilaren 13an, 17:00etatik aitzinera Eztegarra pilotalekuan. Labiaga Ikastolak antolatuta duen ekitaldira sartzeko 7 euro ordaindu beharko da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Tanzaniako Masaai bat Labiaga ikastolan

Wosen Yelesh (Mugarik gabe) izeneko Gobernu kanpoko Erakundeko (GKE) arduradun bat bixitan etorri zen Labiaga ikastolara eta DBHko eta LHko guztiei hitzaldi bana ingelesez eskaini zien. GKE honek, Tanzaniako Enguiki izeneko herri masaai-an lan egiten du haurren eskolaratzea bultzatzeko asmoz, gaur egun %20a baino gutxiago baitaude eskolaratuta. Horretaz gain, herri honetako eguneroko bizitza, haurren egoera, Masaaien ohiturak, kultura, jokoak, etab. azaldu zitzen. Hagitz giro politaz gain ikasleek aunitz galdera egin zitzioten Daniel tanzaniarrari.


Altzate 1 - BERA
Tfnoa: 948 631 462


pº de eztegarra 25 bajo 1.948 63 08 99
31780 bera (navarra) www.sarobe.net


Frutas y Verduras
FRUTAS Y VERDURAS
BRANDONEA, S.L.
FRUTAS Y VERDURAS
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoá, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

HERRIKO ETXEA → APIRILAREN 12RA ARTE

Sanferminetako kartel eta azal lehiaketak deitu ditu Udalak

Herri bozketak erabakiko ditu aurten ere irabazleak

Aitor AROTZENA

Sanferminetako programaren azala eta bes-tak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du, Lesakan jaio edota bertan bizi direnentzat. Lanak udal bulegoetan aurkezteko epea apirilaren 12an, 13:00etan akautuko da, lehiaketa hauetan ohikoa den sistema erabiliz.

Joan den urtean bezala, herri bozketaren bidez aukeratu dira irabazleak. Horretarako, apirilaren 16tik 21era erakusketa eginen da aurkeztu diren lan guzietan. Erakusketa aretoan ez ezik, udalaren webgunearen bidez ere bozkatzeko aukera izanen da.

Irabazleendako sariak murriztu egin dira aurten. Kartel nahiz azal lehiaketan irabazleek 250 euroko saria eramanen dute, herriko ostatu, denda edota zerbitzuetan gastatzeko eta oroi-garria. Kartela argitaratu eginen da eta azaleko lehen saria programaren aitzineko azalean joanen da. Bertze aldetik, gibeletako azala aukeratzeko, herriko ikasketetan ikasten ari diren 6 urtetik 12ra bitarteko haurrei zuzendutako portada lehiaketa ere deitu du Udalak. Hauen lanak ere apirilaren 12rako aurkeztu beharko dira udal bulegoetan. Lehenbiziko saria, herriko dendetan eskolako materiala eros-teko 100 euroko balioa duen bonoa eta oroigarria izanen da, eta irudia programaren gibeletako azalean argitaratua ikus-tea, noski.



Ba al zenekien...

Miguel Indurain Fundazioak Nafarroako kirolari afizionatu oneni banatzen dizkien beketan 1.000 euro jaso dituela Irati Otxoteko txirrindulariak, 4.000 euro Itsaso Fagoagak (Tiro Olinpikoan Espainiako txapeldun) eta 1.000 euro azken honen entrenatzaileak, Antonio Fagoagak.



ARGAZKIA: RAFAEL ENETERREAGA

Olatz Rojok musika banda zuzendu zuen Emakumearen Egunean

Emakumearen Egunaren inguruan hainbat ekitaldi egin ziren herrian: antzerkia, elkarretaratzeak, pankarta ere paratu zen Herriko Etxeko balkoian... Baina bereziena, martxoaren 9an musika bandak Zabaleta dorrearen atarian eskaini zuen kontzertua izan zen. Mikel Iriartek zuzendariaren makila eman zion Olatz Rojo Larralderi eta modu honetan, bandaren 156 urteko historian, lehen aldiz emakume bat izan zen zuzendari. Behin emanaldia bukatutakoan, bandako emakumei lore-xorta bana eman zieten.



ARGAZKIA: ISIDRO ETXEBERRIA

Euskara ikasleak omendu zituzten Korrika berezian

Korrika herri ingurutik pasatu bezperan, Korrika berezia egin zen, Bortzirietako euskara ikasleak omenduz. Bortz lekuko aldaketa egin zituzten ikasleek, herri bakoitzeko lekuko aldaketa bat. Plazan ekitaldia egin zen gero: Tantirumairu euskal folklore taldekoek aureskua dantzatu zuten eta trikitixa taldeak jarri zuten musika giroa. Euskaltegiko ikasle eta irakasleak kantari aritu ziren eta Maddalen Lopez eta loar Taintak ere bertsoak kantatu zituzten eta Korrikako Zunbarekin dantzan aritu ziren, ekitaldia bukatzeko.

XATURETXEA
JATETXEA
T: 948 637 260 · LESAKA

IRU BIDE
Erretegia · Asador
Biturrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

kulki
umeentzako kultur kirolak
Tel. 948 552 171
www.kulki.org

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa · LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak
kattogorria
lentzeria mertzzeria
Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

ETXALAR

KIROLA → APIRILAREN 21EAN EGINEN DA

Dena prest Etxalarko lehen mendi itzulirako

Izena emateko
epea zabalik
interneten

Irune eta Itsaso

Apirilaren 21ean izanen den Etxalarko mendi itzulia 2013 martxan da. Ibilbidea diseinatuz erabat akabatua da eta orain bolondresak bideak garbitzen ari dira. Itzulia egiteko izena ematea zabalik dago internet bidez: <http://altxata.org> orrian.

Ibilaldian parte hartzeko federatu gabeez 12 euro eta federatuek, 10 (txartela ekarri beharko dute) ordaindu beharko dute. Izen ematea egunean bertan 06:00etatik 07:45ak arte ere egin daiteke. Ibilaldia irteera 07:00etatik 08:00etara izanen da.

Parte hartzaile bakoitzari dagokion txartela irteerako kontrol-postuan emanen zaio, hurrengo kontrol postuetan erakusteko. Antolatzaileek osasun postu jarriko dituzte.

Istripu edo ezbeharririk gertatzen baldin bada, Altxata ez da horren erantzule izanen eta parte hartzaileek ez dute kalte ordainerako inolako eskubiderik.

Ezinbestekoa bada, antolatzaileek ibilaldia eten ahal izanen dute edozein unetan.

Ibilbidea bukatu baino lehen uztea erabakitzen bada, antolatzaileei abisua eman beharko zaie 689 246 850 telefonon.



UTZITAKO ARGAZKIA

Emakumeen Mendi Itzulia

Martxoaren 10ean Bortzirietako IV. Emakumeen mendi itzulia egin zen Etxalarren. Goizeko 9:00etan 60 emakume inguru, herriaren sarreratik abiatu eta Zentinelara joan ziren. Eguerdiko 13:00etan elkarretaratzea eta manifestu irakurketa egin zen plazan. Ondotik 35 lagun elkartu ziren Herriko Ostatuan bazkaltera. Bazkalondoa trikitilariekin kantuan aritzeko aukera izan zen, eta eguna akautzeko, Mentxu Peñaren eskutik, *Emakumea mendian ere bai* proiektioa izan zen Kultur Etxean. Bertan; Marimendi taldekoek 2010ean Perura egindako mendi irtenaldiaren irudiak izan ziren ikusgai.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Larraburuko magra txapelketa

Martxoaren 2an Magra txapelketako afaria egin zuten Larraburuan 30 bat lagunek. Musean txapeldunak Javier Irisarri eta Jose Luis Arretxea izan ziren eta partxisean Juanamari Arburua eta Enkarna Iparragirre.



ARGAZKIA: AITZIBER MUJIKIA

Zuhaitzaren Eguna

Martxoaren 1ean Landagain eskolako ikasleak zuhaitzak landatzera joan ziren Axeri Lepora, Lehen Hezkuntzakoak oinez eta Haur Hezkuntzakoak kotxez. Joxeangel eta Patxi udal langileen azalpen eta laguntzarekin zuhaitzak landatu zituzten: elorri zuriak eta beltzak, gorostiak, bertako haritza...

XAGU
LIBURUDENDA

Tel. / Fax BERRIA:
948 638 232

Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

zatoz denda berria ezagutzera!!

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



USOA
Nekazari
kooperatiba

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak · Burdin tresnak
- Insektizidak · Edariak · Haziak
- Botikak (errezetarekin)

Etxez etxeko banaketa egiten da
Kalefakzioa eta ibilgailuendako gasolioa

Tel. eta Faxe: 948 63 52 14 • ETXALAR

J. RAMOS
zolak akutxilatuta eta
barnizatzen dittut

Sakelekoa: 637 836 023 · LESAKA



harategia

Bertako
produktuak

Eztegara, 3 · BERA
Tel/Faxe: 948 630 088

OSPAKIZUNAK → BARATZONDO ELKARTEAN

Kantu zaharren bazkaria eginen da apirilaren 6an

Sarrerak apirilaren 1a baino lehen eskura daitezke, 25 euroren truke

Joxean ORTEGA

Lehenengo alean aipatu zen bezala, aurten ere *Kantu Zaharrak* bazkaria ospatuko da, Udaleko Kultur Batzordeak antolatuta. Aurtengo data apirilaren 6a izanen da, larunbata, Baratzondo Elkartearen, eguerdiko 14:00tan hasita.

Sarreraren salneurria ere iazkoa izanen da: 25 eurokoa eta salgai paratu dira betiko lekuean apirilaren 1a arte. Hori bai, aurten ezustekoren bat ere ba omen da...

Herriko lehen mus txapelketa

Igantzi Herriko Lehen Mus Txapelketa ere jokatu dela ere gogoratu behar da eta dagoeneko izena emateko epea zabalik dela, apirilaren 1a bitarte Al-linea eta Herriko Etxea ostatuetan, bikoteko 40 euro ordainduta. Apirilaren 5ean hasita, ortziraletan 19:30etik aitzinera jokatu dira partidak bi ostatu horietan. Sari ederrak izanen dira: lehenbiziko bikoteak 400 euro eskuratuko ditu, bigarrenak 200 euro eta hirugarrenak 100 euro. Zenbat ausartuko dira 400 euroko sari eder horri ordagoa botatzera?

Korrika

Korrika Berrizaundik martxoaren 17an, igan-



ARGAZKA: JOXEAN ORTEGA

Giro ederrean egin zen Korrika Ttikia.

degoizeko 6:00etan pasatu zen. Ordurik egokiena ez bazen ere, ende andana bildu zen, baita haurrak ere. Bi kilometro erosi ziren herriko elkartearen artean: Udala, Biltoki, Biltoki Txiki, Eskola eta Guraso Elkarteak. Ortziralean Igantzi barna ere "Korrika Ttikia" egin zen, eta herriari buelta emanez eskolako haur eta irakasle guztiak Korrikaren aldeko lasterra eta dantza ere egin zuten.

BORTZIRIAK

Euskal Herriko solaslagnak bilduko dira Etxalarren apirilaren 13tik 14ra

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 13tik 14ra Etxalarko Mokorreko-borda baserrian bilduko dira Euskal Herrian mintzalaguna, solaslagnak eta gisako mimitzapraktika proiektuetan euskara lantzen ari direnak. Mokorreko-borda baserrian izanen da asteburupa eta 28 lagunendako tokia eskainiko dute. Otorduak, lotarako lekua, tailerrak eta ibilaldiak eskainiko dituzte. Izena emateko, arrate@topagunea.org helbide elektronikora idatzi edo 673 428464 telefonora deitu behar da.

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TEL: 948 625 472

ERREKALDE
PLATER KONBINA TUAK
OSTATUA
PINTXOAK
BOKATIAK
TFNOA: 948 630 259 BERA

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

L autoeskola
Semper
ttipi txartela
%10^{eko} DESKONTUA matrikulan

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarrtasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

ARANTZA

GIZARTEA → KOMUNIKABIDEEN ALDE

Felix Iparragirrek eta Migel Mari Altzurik irabazi dute mus txapelketa

Fermin Etxeberria eta Jesus Mitxelena izan ziren azpitxapeladun

Nerea ALTZURI

Otsail hondarrean, Xalao, Xorroxin eta TTI-PI-TTAPAREN aldeko mus txapelketa egin zen Ekaitza Elkartean. Ne-gu gorriko eguraldia zen... baina eguraldia ez zen oztopo izan. El-karteko bazkideek dena prestatu zuten eta zazpi bikotek txapelketan parte hartu zuten. Irabazleak, Felix Iparragirre eta Migel Mari Al-zuri izan ziren eta bil-dotxa eta botil ardoak eraman zituzten etxera; azpi txapeladunak Fer-min Etxeberria eta Je-sus Mitxelena izan zi-ren, bi oilasko eta bi bo-til ardo opari hartuz. Beraz, Felix eta Migel

Marik datorren apirilaren 6an, Sunbillako Uli-beltzak elkartean egin-den finalerako txar-tela lortu dute. Zorionak eta suerte on finalean!

Bidenabar, hiru ko-munikabideen izenean, eskerrik asko Ekaitza el-karteari eta partaideei.

Korrika

Korrikaren 18. edi-zioa ere joan zaigu. Al-di honetan ere, milaka lagunek bat egin dute Korrikarekin. Martxoaren 17an, goiz aski sar-tu zen Bortziritako lu-rretan eta herrian ere, lagun talde batek las-terka egiteko aukera izan zuen. Berrizaundik Sunbilla aldera, N121A errepidean, 56 eta 57. kilometroetan lasterka aritu ziren. Udala, Aran-tzako eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak, Gazte Asanbladak eta Aterpek parte hartu zu-ten Korrika nagusian,



ARGAZKIA: MARIBEL APEZETXEAK UTZIA

Emakumearen Eguneko ekitaldiak eta Mendi Itzulia

Martxoaren 8an, ilunabarrean, herriko plazan, Aintzane, Aitziber, Amaia eta Ido-iak, kanta bat kantatu zuten egunean erreparatuz. Elkarretaratzea ere egin zen eta ondotik, iragarri bezala, berendu afaria eta bideo emanaldia izan ziren. Bertzalde, Enkarna, Luzia, Junkal, Pili, Kontxita, Arantxa, Mentxu, Ester, Lurdes, Kontxita, Maribel, Edurne, Isabel, Begoña eta Gabina ageri dira argazkian. Martxoaren 10ean, emakumearen nazioarteko egunaren harira mendi ateral-dia egin zuten. Iaz Arantzán egin zen eta oraingoan, Etxalarren 70 emakume bildu ziren eta tartean, bertakoek ere parte hartu zuten. eguraldi ederra lagun, mendi itzuli polita egin zuten. Ondotik, Herriko Ostatuan bazkari goxoa egin zuten; Mentxu Peña aranztarra bertan zela, Marimendi taldeari buruzko sola-sak eta irudiak ikusi zituzten Kultur etxean eta bazkalondoan. Bertako trikitila-riekin ere, egunari akabera eman zieten.



ARGAZKIA: AITOR ELEXPURU

Eskolako neska-mutikoek gustora parte hartu zuten Korrika Ttikian.

baina argazkian ageri denez, eskolako neska-

mutiko, irakasle eta gu-rasoek ere egin zuten

bere Korrika Ttikia he-rrian barna.

LARRALDEA
eta
LINDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

BERA Zure ingurua klase guzietako in-sektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutxo-z garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zalain, 42 A • BERA

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

ANTZUZELAI
S.L.

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertalzak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

SUNBILLA



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Kantu Zaharren egun arrakastatsua

II. Kantu Zaharrak eguna ospatu zuten martxoaren 9an Ariztigain Kanpinean. 72 lagunek izan zuten aukera gustora bazkaldu, eta giro ederrean pasatzeko eguna. Ondotik pintxoak ere bazituzten afaltzeko eta egun borobila izan zen. Musikarekin Santxotena eta kantuan Aitor Ibarra (Jalisko) eta Angel Marizkurrena zeuden. Ez ziren bakarrak izan kantuan ibili zirenak. Iradi (8 urte) eta Maialen (6 urte) Arretxea ahizpak ere kantu bat eskaini omen zuten, baita Ainara Mindegia eta bertze leitzar batek ere. Zorionak egun polit hau ospatzeagatik eta animo hirugarrenaren eguna ospatzera.



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Iker Espelosin txapelkun Bortzirietan

Bortzirietako eskuz banakako txapelketan kadete mailako txapela lortu du Iker Espelosinek. Enaitz Ansoren aurkako finalean, 14-17 galtzen joan ondotik 18-17 irabazi zuen. Ez da Ikerrek lortzen duen lehendabiziko txapela. Zorionak.

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 28tik 31ra

Pintxoaren Astea antolatu dute lau ostatuetan

Botoa emateko aukera ere izanen da

Maider PETRIRENA

Sunbillako Pintxoaren Astea ospatuko da lehen aldiz martxoaren 28tik 31 bitarte herriko lau ostatuetan: Itturburu, Fonda, Bustitz eta Ariztigain Kanpinean.

Pintxo bakoitza dastatu eta gustokoari botoa emateko aukera ere izanen dute ostatueta-
ra hurbiltzen direnek. Partaide guztien artean herriko produktuez osatutako saski bat zozketatuko da. Zozketa apirilaren 1ean egingen da Itturburu ostatuan, eguerdieko 12etan. Animate eta dastatu!




ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Korrika Ttikia...

Martxoaren 15ean korrika ttikia egin zuten eskolako haur eta irakasleek. Ikusita ortzegunean zer elurtea egin zuen, ez zuen ematen ostiralean korrika ttikia egiteko aukerarik izanen zenik, baina bai, a zer nolako denbora atera zitzairen. Herri osoan barna egin zuten korrika lekukoa pasatuz. Azkenak 3. urtekoak izan ziren lekukoa hartzen.

...eta Korrika haundia!

Martxoaren 17an Korrika pasatu zen Sunbillatik. 6:58ean Udalak eta Ulibeltzak elkartearen artean erositako kilometroa hartu zuten, lehenik Florentino Gelbentzuk zinegotziak hartu zuten lekukoa eta gero Jesus Mari Jorajuriak, Ulibeltzak elkarteko lehendakariak. 7:03ean, zubi berrian gazteen txanda izan zen eta Izaro Alzurik hartu zuten lekukoa.



ARGAZKIAK: BIDAL IBARRA

Ulibeltzak mendi taldea Xabiererra

Martxoaren 9an Ulibeltzak Mendi Taldeak Xabiererra egin zuten irteera. A zer nolako eguraldia egin zien. Segi horrela.

Sagardo besta Bustitz ostatuan

Sagardo besta ospatuko dute apirilaren 13an Bustitz Ostatuan. Sagardotegiko menua izanen da 28 euroren truke, kupela eta guzti eta horrez gainera DJ Alkape. Apuntatzeko 948 627 955 telefonora deitu behar da apirilaren 8a baino lehen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herreratarrak Mendi bizikleta martxan

Martxoaren 3an hasi zen Izkuen Caja Ruralek urtero antolatzen duen BTT martxa. Bertan bi anai sunbillarrek parte hartu zuten Eneko eta Koldo Herrerak. Animo eta Zorionak.

DONEZTEBE

GIZARTEA → MARTXOAREN 8AN INAUGURATU ZUTEN

Transferentzia gune berriak inguruko 22.000 bizilagunen 8.000 Tona hondakin hartuko ditu

Bolumena ttitikitu eta Tuterako tratamendu fabrikara eramateko

TTIPI-TTAPA

Iparaldeko hondakinen transferentziagunearen inaugurazioa egin zuten martxoaren 8an. Nafarroako Hondakinen Partzuergoak sustatzen du zonaldeko hondakin biodegradagarrien garraioa kudeatzeko eta Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari eta Partzuergo horretako presidenten José Javier Esparzak parte hartu zuen ekitaldian, Miguel San Miguel alkateak, Toki Administrazio zuzendari nagusi Patxi Perez-ek eta baita NILSA (partzuergoaren erakunde kudeatzailea) sozietate publikoko gerente Andres Sola-k bezalaxe.

Eraikitzen den mota horretako hirugarren fabrika da, Tafallakoaren eta Zangozakoaren ondotik: mankomunitateek beren zaborra eramaten duten tokiak dira, eta bertan trinkotzen dira, azken helmugara, Tuterako El Culebreteko tratamendu-fabrikara, heldu arte. Fabrika horiek eraikiz hondakinen azken helmuga tratamendu egokia duen zentro bat dela ziurtatzen da, Europako araudien arabera, eta baita toki-zabortegeak desagertzea ere.

Doneztebeko fabrikak Nafarroa iparraldeko hondakinak hartzen ditu, zehazki Bortzirriak eta Malerrekako man-

komunitateenak eta Baztango udalarenak: 22.000 bizilagunek sortutako 8.000 tona inguru urtean. Bertan hondakinak prentsatzen dira, haien bolumena txikituz toberatan trinkotutako sistema baten bidez.



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Agintariak, transferentzia gunearen inaugurazio ekitaldian.

Esparza kontseilariak aipatu zuenez, «partzuergoaren helburuetako bat nafar guztiei hondakinak biltzeko eta tratatzeko sistema bakar eta homogeen bat ematea da, foru-lurraldeko edozein puntutan kostu bera izanik eta Europako araudia betez». Gainera, «guztizon laguntza» eskatu du, «ahalik eta adostasun handienarekin, 2020rako zabortegeak desagertzeko helburua lortzearen».

Transferentziagune hori eraikitzeko 2,5 milioi euro behar izan dira, eta kopuru horretatik 2 milioi Nafarroako Gobernuak jarri ditu 2009-2012 Toki Inbertsioen Planaren bidez eta, gainerakoa, Nafarroako Hondakinen Partzuergoak. Transferentziagunearen mantentze-lanetarako kostuak eta hondakinen garraioa Partzuergoak berak kudeatutako partzuergo-tasaren diru-bilketaren kargu finantzatuko dira.

Ba al zenekien...

Errekako mutiko infantilen taldeak Final Four jokatu duela apirilaren 26, 27 eta 28an. Liga akitzeko lau jardunaldi falta zirenean lortu zuen sailkapena.

ASTE SANTUA

Futbito txapelketa mistoa antolatu dute gurasoek

TTIPI-TTAPA

Erreka eta Mendaur Guraso Elkarteek elkartasun futbito txapelketa antolatu dute. Txapelketa mistoa izanen da eta 13 kategoriatan banatuta, 2008an jaiotako haurretatik hasi eta 1982a baino lehenago jaiotakoak bitarte. Doneztebeko kiroldegian jokatu da apirilaren 3, 4 eta 5ean, goiz eta arratsaldean. Talde bakoitzean guttienez 3 neska eta 3 mutiko izan behar dute. 16 urte artekoek ikastetxetan eman beharko dute (euro bat jokalariko) eta helduagoek ostaluetan (2 euro). Izen ematean lortzen den dirua janari-bankua hornitzeko izanen da.

ORBELA
SENDERSHIA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.beintza-orbela.com

ARMUA JAIETXEA



T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3.km
URDAZUBI

ola
SAGARDOTEGIA

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA

102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · Tfnoa 943 623 130

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa



- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiaik
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

KULTURA → APIRILAREN 12RA BITARTE

Eva Irazokiren margolanak ikusgai Bertizko Jauregian

‘Urarekin jolasean’ eta ‘Paisajes y bodegones’ bildumak zintzilikatu ditu

Martin BERTIZ

Eva Irazoki Narbarteko margolariak martxoaren 8tik apirilaren 12ra erakusketa antolatu du Bertizko Natur Parkeko jauregian. Urte batzuk pasa dira marrazketa eta margo klaseak hasi zituenetik Irungo Udal margo Akademiaren, geroztik lane-

an segitu du hainbertze marrazketa, akuarela eta erretratu ikasketetan, lekuko margolari ezagunekin.

Hainbat erakusketa egingo dira Eva eta oraingoan *Urarekin jolasean* margolanekin dator. Bi gelatan kokaturik daude bere lanak, lehendabizikoan erran berri dugun lana dago eta bigarrenean *Paisajes y Bodegones* margoak ikus daitezke. Animatu nahi duen guztiari Bertiztik bueltatxo bat ematera eta Narbarteko herriari daukagun artista pixka bat ezagutzeko aukera izanen duzue.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Korrika

Euskal Herri guzitik euskararen indarra eramaten ari den Korrika Narbartetik ere pasa zen. Goizeko zortziretan egin zuen agerraldia eta Legasatik pasa ondortik Tellerian egin zuen lekuko aldaketa eta herria igarota Oieregira sartu zen.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Emakumearen Eguna

Pasa den martxoaren 17an ospatu zen Narbarten Emakumearen eguna. Ostatuan bazkari batekin egin zitzaion ohore eta 20 bat lagun bildu ziren.

BERTIZ

GIZARTEA → ATERPE ETA ORBELA ATERPETXEETAN

Udalekuak euskaraz eskainiko dituzte Arantzan eta Beintzan

Apirilaren 8tik maiatzaren 10era apuntatzen ahal da

TTIPI-TTAPA

Arantzako Aterpeak, Beintza-Labaiengo Orbela aterpetxeak eta Bertizko Turistiko Partzuergoak *Euskaraz Blai* Euskarazko Udalekuak kanpaina aurkeztu du te martxoaren 15ean,

ortziral goizean Bertizko Partzuergoaren egotzian. 14 urte beteko dituzten gazteen artean euskara suspertu eta indartzeko asmoz egingen den kanpainak eta proiektu honen eragina bi herri hauetako ekonomian eta lan arloan nabaria dela azpimarratu zuten aurkezpenean Garbiñe Elizegi, Baztango alkateak, Orbela aterpetxeko Mikel Albisuk eta Aterpeko Xabi Zugarramurdik,

«zazpi lagun aritzen baitira aterpetxeetan, 8 begirale dinamizatzaile, 40 autobus bidaia kanpainan zehar...».

Bi aterpetxeek, Nafarroako Gobernuarekin orain arte egin duten bezala, kanpaina bera eskaintzeko konpromisoa hartu dute, ekainaren 24tik abuztuaren 31ra. Lehen Hezkuntzako 8 eta 12 urteko eta DBHko 13 eta 15 urte arteko 900 ikaslerendako lekua eskai-



UTZITAKO ARGAZKIA

Garbiñe Elizegi, Mikel Albisu eta Xabi Zugarramurdi.

niko dute, 6 eguneko eta 5 gaueko egonaldietan, hamar aste aterpe bakoitzean. Aurten go prezia asteko 225 eurokoa izanen da, baina berrikuntza moduan, azkeneko bi urteetako errepikatzaileek, anai-arrebek edo gutxienero 5 lagun taldean

izena ematen dutenek prezio berezia izanen dute, 20 euro merkeago.

Bertiz Partzuergo Turistikoak antolatu du aurteko kanpaina eta haren bidez egin behar da matrikulazio prozesua apirilaren 8tik maiatzaren 10era.

EZKURRA

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 8A

Malerrekako emakume talde batek bere eguna ospatu zuen

Jubilatuak sagardotegian ibili ziren hilaren 14an

Fernando ETXEBERRIA

Martxoaren 8an, Malerrekako emakume talde bat bildu zen Barranka ostatuan, elkar- teak emakumeei eskaintzen dien eguna ospatzeko. Egia erran, egu- nero behar luke egun horrek. Irudian ikusi litekeen bezala, afari ederraz gozatu zuten eta afalondoa berandu- ra arte luzatu omen zen.

Jubilatuak sagardotegian

Arkupeak elkarteko Ezkurrako 11 bazkidek irteera egin zuten martxoaren 14an Donostiara eta Aginaga sagardotegian bazkaldu zuten gero. Eguraldia ez zuten lagun izan. He-

rriaren irteera elurtuta eta errepidearen egoera ere kaxkarra zen, baina poliki poliki lortu zuten Gipuzkoako hiriburura iristea. Han elkar- tu ziren elkarteko 320 bazkide. Ezin izan zuten gehiegi gozatu Donostian egin gogo zuten ibilaldiaz, haize zarkarra, euria eta kazkabarrak ez baitzieten utzi alde zaharra lasai bositzen. Sagardotegian aldiz, ederki pasa zuten eta bapo bazkaldu.

Eskolaren etorkizuna

Aurreko alean azaldu genuen, udalak eskolaren etorkizunaren inguruan gutun bat bidali zuela etxeetara. Eskolaren egungo egoera zein den azaldu eta her- ritarren iritzia biltzea zen gutun horien helburua. Jende gutxik erantzun zuen idatziz. Iritzi eta proposamen guzti-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Malerrekako emakumeak Barrankan ospatzen.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak elkartearekin batera sagardotegira joan ziren Ezkurrako hiru lagun.

ak errespetatu behar dira, baina irainak ekidin behar dira.

Nire ustez, irtenbide- rik egokiena, subentziorik lortuko balitz, herri- ko enpresa batek teila- tua, leihoak eta atek konpontzea litzateke eta beheko solairua auzo- lanean konpontzea. Be- heko solairu horretan, bilera gela, irakurketa eta ordenagailu gela...

jartzeko aukera egon- en litzateke eta etorkizu-

neko eskola bertan ere egin liteke.

ARKUPEAK

Gimnasia Eguna apirilaren 4an Beran

TTIPI-TTAPA

Arkupeak elkarteak urtero antolatzen duen Gimnasia Eguna apirilaren 4an izanen da aurtengoan. Azken urteetako ohiturari utsiz, eguerdian eginen dute erakustaldia Toki Ona kiroldegian eta gero, kirolari eta laguntzaileek bazkaria izanen dute Zubiondo jatetxean.



BISITA TXARTELAK
TURISMO ETXEAK - LANTEGIAK
JATETXEAK - DENDAK - TAXIAK,...

ttipi-ttapa

Keskontako bidea, 7 - 1 | 31770 LESAKA
948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net

HILABETE HONETAKO
ESKAINZA **80€**

250 Bisita txartel

Koloretan bi aldeetatik
300g (85cm x 55,6cm)
Diseinua + inprenta + garraioa
BEZa barne
Epea: 10 lan egun

KIROLA → ERREMONTELARI HARROBIA

Aritz Juaneneak debuta eginen du Galarretan

Endika ere gero eta kategoria gehiagoko partidetan ari da

Markel LIZASOAIN

Erremontea ez dago bere onenean, baina Saldiasko erremontelariak notizia onak ematen dituzte oraindik. Hondarrekoa Danbolingo Aritzek debuta egin behar duela. 20 urterekin sartuko da Endikaren ondora.

Esku pilota utzi eta erremontean hasi zen orain urteren bat dela. Afizionatuetan dauden txapela guziak irabazi ditu: GRAVNEkoa, Noaingo Hiru Kirolekoa, Nafarroakoa eta azke-

na Euskal Herrikoa. Iaz, baita herriko pala txapelketa ere.

Indar handiko mutila da Danbolingo, eta ongi moldatzen da frontoian. Ttikitatik du dohain hori, eskola ondo arratsaldeak frontoian igarotzen baitzitu.

Okerrik ez dela apirilean jokatu du lehenengo partida Oriamendekin, Galarretako pilotakeluan. Suerte ona izan dezala!

EUSKAL HERRIKO FINALA

Martxoaren 9an jokatu zuen Aritzek Euskal Herriko erremonteko finala, Iñigo Zubeldia herrikidearekin, Huarterko Euskal Jaian: 40 eta 33 egin zuten, bi azpeitiarren kontra: Se-



ARGAZKIA: MAXENGO INIGO

Aritz eta Iñigo, Euskal Herriko finalean; tartean, Porron Pilota Federazioko presidenteordea.

gurola eta Larrañaga. Aurrean aritu zen Aritz, eta atzean, Iñigo. Galitzen hasi ziren saldistarrak, 8-2, eta galitzen joan ziren ia partida gehienean (18-14 eta 26-23), baina hondarreko partida berdindu, eta atzeneko hamartantoe-tan estualdi on bat emanda utzi zituzten hogeita hamahiruan giputzak.

ENDIKA ERE GORAKA

Mielmarik eta Oskarrek utzi zuten pilotako ofizioa, baina Endikak hortxe segitzen du, eta goraka ari da hori ere. Urte batzuk dira Endika profesionaletan hasirik, eta kategoria gehixeagoko partidak jokatzen ditu orain; gainera, maiz samar sartzen dute hirugarren partidetan.

MALERREKA eta BERTIZARANA

Artzain amerikanoen testigantzak biltzen ari dira

TTIPI-TTAPA

Euskal Artzainak Ameriketara artzain joan zirenen inguruko ondarea jasotzen ari da. Oroimen historikoaren alde lanean, eskualdeko belaunaldi batek bizi izan zuena ahanzi ez dadin lanean dihardute. Azken urteetan Aezkoa, Erro, Baztan eta Bortzirietakoak jaso ondotik, Malerreka eta Bertizaranan ari dira orain bilketa lanean. Christina Irigoienek Sunbillako testigantza eta argazkiak jaso ditu. Malerrekako gainontzeko herrietako eta Bertizaranako artzainak elkarrizketatzeaz beriz, Tomas Ibarra zubietarra arduratu da.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

2013 UDABERRIKO KOLEKZIO BERRIA
edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

GAZTE OIHUA

GIZARTEA → GAZTE MUGIMENDUA

Lesakako Gazte Eguna apirilaren 13an ospatuko da

Solasaldia, paella txapelketa, bazkaria, jokuak, poteoa eta kontzertuak izanen dituzte

GAZTE OIHUA

Ametsari tira ta tira, gaztetxia herrira lelopean egun osorako egitarau osoa prestatu dute

Lesakako gazteek. Goizeko 10:30ean Berako Kaxerna eta Leitzako Atekabeltz gaztetxeko kideekin solasaldia izanen da, bertze herrietako gaztetxeetako esperientzietatik ikasi nahian. 12:30ean Paella txapelketa hasiko da eta koadrilla bakoitzak bere bandera eginen du. Egindako paella bazkalduko dute ondotik (5 euroren truke paella egin dutenentzat eta 8 euro egin ez dutenentzat:

apuntzeko Arrano eta Atxaspin). Arratsaldean jokuak izanen dira, ondotik poteoa Skandalue elektrotxararekin eta arratsa ongi akautzeko kontzertuak: Dama, Afu, Anai Arrebak eta Bad Sound System. Aurten berrikuntza bat izanen da gainera, karpa jarriko baitute gazteek. Arratsean zehar bokatak ere emanen dituzte, eta egun osoan zehar mozorrotuta joateko zein nork



UTZITAKO ARGAZKIA

Jokuak izanen dituzte arratsaldean Gazte Egunean.

bere edalontzia eramateko deia egin dute gazteek.

Kaxernan musika gogor besta apirilaren 6an

Berako gaztetxean musika gogorraz goza-

tzeko aukera izanen da apirilaren 6an arratskeo 21:30etik aitzinera. Honako talde hauek joko dute: Matutano (Bilbo), Alerta (Durango), Dama (Doneztebe) eta Eraso (Zarautz). Sarre-ra 5 euro ordaindu beharko da.

Eskualdeko gazteek Danbadara joateko deia zabaldu dute

GAZTE OIHUA

Jada bukatu da Gazte Danbadako bonoak aitzinetik erosteko epea baina Urduñan bertan aukera egonen da horretarako ere. Bertalde, eguneko bonoak ere salgai dira internet bidez eta han ere izanen da erosteko aukera. Hortaz, eskualdeko Ernaiko kideek oraindik zalantzan dauden gazteak animatu nahi izan dituzte Urduñako jaialdira hurbiltzera, giro ederra izanen baita, eta ikusi zein egiteko auke-



ra zabala. Egitarau osoa eta informazio gehiago gaztedanbada.net webgunean eskuragai dago.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gazteak ere euskararen alde

Gazte Oihuari jakinarazi zaionez, bertzeren artean Berako Kaxerna gaztetxeko kideek eta Lesakako gazte asanbladakoek kilometro bana hartu zuten Korrikan, gazteak ere euskararen alde daudela erakutsiz.

KATEA-BIKE

ttipi txartela

5% DESKONTUA konponketetan

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

ITUREN

ZUBIETA



UTZITAKO ARGAZKIA

Ikasle, irakasle eta gurasoekin batera, Marijose Bereau alkateak parte hartu zuen.

GIZARTEA → KORRIKA

Herritik pasatu ez bada ere, Korrikarekin bat egin du herriak

Korrika ttikiaren ondotik murrizketen kontrako argazkia atera zuten

Arkaitz MINDEGIA

Nahiz eta herritik aurtengo Korrika ez pasa, hainbat ekitaldi antolatu ziren eta herriko gazte, heldu, neska eta mutilak korrikarekin bat eta korrika egin dute. Alde batetik martxoaren 15an iragarria zegoen korrika ttikia egin zen. Pulunpa eskolako irakasle, ikasle eta gurasoek herriko bazter guzietan ibili ziren, lekuok pasatzen ikasle gu-

zian artean, zaharrentik hasi eta gaztetxoekin tartekatuz. Murrizketen kontrako argazkia egin ondotik, indarrak hartu zituzten guraso elkarteok prestaturiko txokolate beroarekin.

Martxoaren 17an eskualdetik pasatu zen Korrikan bi kilometro hartuak zituzten udalak eta Malerrekako eskola ttikiek. Goizeko seiak eta erdiak aldera hartu zuten lehenbiziko herritarrek lekukoa eta geroxeago besteek. Denen artean herritar koadrilla batek parte hartu zuen. Gero, oraindik indarra zutenek kilometro gehiago egin zituzten. Ohitura faltagatik, ondorioak izan zituzten batzuk, baina denak kontent gelditu ziren.

Emakume afaria

Emakumearen nazioarteko egunaren araberako emakumeek afariak antolatu zituzte. Batzuk egunean bertan eta besteak martxoaren 9an, herriko elkartearen eta eskualdean bertean, eduki ospatu eta ederki pasatu zuten emakumeek.

Aste Santua

Heldu diren opor ttiki hauek gustora hartuko ditugu herrian. Egun batzuetan lasai ederrean ibiliko gara eta espero dugu bertako xokoak kanpoko turistekin betetzea, bertan landetxe aunitz baitaizkagu, Tresanea eta seguruenik beteak egonen direla.

GIZARTEA → MARTXOAREN 22AN IREKI ZUTEN

Ostiral Santuan kontzertua izanen da Herriko Ostatuan

Maite Menet kantautorea ariko da

Fermin ETXEKOLONEA

Martxoaren 22an ireki zuen Herriko ostata maizter berriak, Julia Itoizek. Inaugurazio ekitaldia herriko musikariek egin zuen eta biharramonean, komunikabideen aldeko mus txapelketa jokatu zen. Aitzinera begira, Ostiral santuan kontzertu bat izanen da: Maite Menet kantautorea ariko da, 22:00etan.

Maestraren Etxea

Maestraren etxea alo-

kairuan jartzeko moldatu nahi da lehenik. Hiru lau eraikuntza enpresari eskaintza egin die Udalak, moldaketa lanak egiteko. Auzolanen ere lan batzuk egiteko asmoa dago.

Sagardotegira

Aste Santuan sagardotegira ateraldia eginen da aurten ere, azkeneko urteetako ohitura eutsiz. Martxoaren 30ean joatekoa da koadrilla bat.

Egur loteak

Sunbillako Altzuri enpresak egingen ditu egur loteak. Tona 30 eurotan aterako du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zubietarrak Korrikan.

Mari Cruz
LENTZERIA

ttipi bartela

% 10eko
DESKONTUA
30€tik gorako gastuan

MENDIKO
SAGARDOTEGIA · ERRETEGIA · JATETXEA

IBARDIN (BERA)

SAGARDOTEGI MENUA
Txorizoa sagardoan | Bakailao-tortilla | Bakailao frijitua | Txuleta | Gazta eta intxaurrak

MANTTALE MENUA
Kroketak | Bakailao-tortilla | Txuleta | Gazta eta intxaurrak

EGUNEKO MENUA

Joan-etorrirako garraioa negoziatzeko aukera
Gauz irekia (guttieneko taldea 20 perts.)

ERRESERBAK
948 630 302
670 365 011

MENDIKO **DESKONTUA**

Bono hau erakutsita **%10eko** DESKONTUA (menu berezietan izan ezik)

ELGORRIAGA

OSPAKIZUNAK → DRAG QUEEN ETA GUZI

Ezkontza berezia ospatu zen martxoaren 16an

Frontoian jarritako karpán ezkondu ziren Hilarion eta Luis

Mattin LARRALDE

Ezkontza berezia izan genuen herrian martxoaren 16an. Hilarion eta Luis ezkondu ziren. Arratsaldeko 6etan drag queen batetik ongietorria eman zuten gonbidatuek eta berekin batera argazkiak aterazituzten. Ezkongaiak agertu eta bertan ezkondu ziren. Gero, aperitibo bat eskaini zen eta autobusa hartuz afaltzera joan ziren gonbidatuak. Afari ondotik, berriro herrira buelta eta

zer sorpresa frontoian jarritako karpak izan zuten aldaketa ikusterakoan. Diskoteka onenen pare, alde batean konbinatuak eta koktelak prestatzen zituzten bi gaztek. 1980-90 hamarkadako musikarekin dantzan suelto ibili zen jendea, giro ederrean, igande goizaldera arte. Zorionik beroenak Hilarion eta Luis-i. Zuen maitasunaren sua ez dadi-la itzali inoiz. Zorionak.

Alkatea Korrikan

Korrika egun horretan pasatu zen eta ospakizuna zela eta pertsona bakarra agertu zen, baina hura herriko alkatea eta berak 21 km egin zituen. Beharrik,



UTZITAKO ARGAZKIA

Dotorezia eta giro ederra izan zen ospakizunean.

bere gogoengatik ez baltiz, euskararen aldeko lekukotza hutsik utzi izanaren baigenuen Elgorriagan. Zoritarrez egun berean suertatu ziren bi ekintzak eta jendea herrian gelditu zen besta giroan. Seguru hurrengoan jende gehiago mugituko dela euskararen alde.



DONAMARIA

GIZARTEA → MARTXOAREN 9AN

Sagardotegira bisita egin dute herriko gazteek

Hogeita hamar lagun joan ziren autobusean

Izaskun GOÑI TELLETXEA

Martxoaren 9an, larunbat eguerdian, 30 lagunek autobusa hartu eta Lasarteko Otegi sa-

gardotegira joan ziren. Ederki bazkaldu eta sagardo ausarki edan ondotik, berriz ere autobusa hartu eta Hernanira joan ziren bestearekin segitzeko.

Ageri denez, primeran pasatu zuten. Bueltan etxe aldera goizeko 2etan abiatu ziren.



ARGAZKIA: IZASKUN GOÑI TELLETXEA

Giro ederrean egin zuten gazteek sagardotegiko joan-etorria.

GIZARTEA → EZKONDU zenetik GIPUZKO ALDEAN BIZI DA

101 urte bete ditu Kaperottikiko Carlos Eskuderok

Mantxintxako Petra Bergara emazteak ere 92 urte eginen ditu aurten

TTIPI-TTAPA

101 urte bete zituen martxoaren 8an Goizuetako Kaperottikin sortua den Carlos Eskudero Mutuberriak. Emaztea ere goizuetarra du, Mantxintxako Petra Bergara Zubiri, baina ezkondata Oiartzunera joan ziren bizitzera eta orduz geroztik Gipuzkoan bizi dira. Semearekin eta alabarekin, bost bilobekin eta bi birbilobekin

beekin ospatu zuten egun handia.

Goizuetarra sortzez, 9-10 urte zituela Berdabiora joan zen Carlos Eskudero familiarekin. Goizuetar batekin, Mantxintxako Petra Bergarekin ezkondu zen, baina Oiartzunera joan ziren bizitzera. Maria Luisa eta Migel Angel alaba eta semea izan zituzten Oiartzunen. Handik, duela 48 urte inguru, Erreterira joan ziren. Bost biloba eta bi birbiloba dituzte Carlos eta Petrak eta elkarrekin ospatu zuten 101. urtebetetze festa. Petrak berak ere 92 urte beteko ditu aurten.

Gazte denboran, basko lanean aritu zen Carlos, ikatza egiten, eta gero Iberduerorentzat, argindar-lineak jartzen. Oraindik orain, osasunez ongi dago Carlos Eskudero. «Zutik ezin da egon, baina taka-taka hartuta ederki ibiltzen da hara eta hona, bera garbitzen da eta gauza batzuetarako laguntza behar baldin badu ere, ederki moldatzen da eta burua oso ongi du», dio Maria Luisa alabak. Bizitzako oroitzapenik onena zein duen galdetzerakoan, «espostea» erantzun digu zalantzarik gabe Kaperottikikoak. Gerra



UTZITAKO ARGAZKIA

Carlos Eskudero eta Petra Bergara senar-emazteak. 101 urte bete berri ditu Carlosek eta 92 egitera doa Petra.

ezagutu bazuen ere, oroitzapenik txarrena «soldaduska Afrikan egitea» dela dio.

Aspaldian Gipuzkoan bizi arren, sorterria ez dute ahazteko Carlos eta Petrak eta urtee-

tan Goizuetan duten pisura etorri dira Aste Santua eta uda pasatzera, bilobekin. «Orain zaila da, aszensorerik ez du pisuak eta eskaileraz ezin ditut igo, beraz ez gara joaten», dio.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Umore Ona abesbatza Bilbon

Martxoaren 17an Bilbon izan zen Umore Ona Abesbatza, Kirikiño ikastolako gurasoen abesbatzarekin trukaketa bat egiteko asmoarekin. Beraiek urria edo azaro aldera etorriko dira Goizuetara. Goizean ibilbide turistikoa egin zuten, Alde Zaharra, Guggenheim, Calatrabaren zubia, Begoña... ikusiz. Ondotik Kirikiño ikastolan izan zen emanaldia, Umore Onak hasiera eman, bertako gurasoen abesbatza gero eta ikastolako neska-mutikoen abesbatza azkenik. Bukatzeko bi talde helduenak batera abestu zuten. Ondotik aperitiboa hartu eta Kafe Antzokira joan ziren bazkaltzera. Ederki jan eta Alde Zaharrean kantu jira bat egin ondortik itzuli ziren. Giro oso ona izan zen eta primeran pasa zuten.

Zizurren ere txapeladun

Ez da txapelak irabazteaz aspertzen Iker Salaberria. Azkenekoa, Zizur Nagusiko lau terdikoa izan da, 1999an jaiotako infantil mailako pilotarien artean. Martxoaren 16an jokatutako finalean 16 eta 14 irabazi zion Lazkao-ko Iraitz Zubizarretari. Argazkian ageri denez, Ruben Beloki handiak eman zion zapela eta saria.



Ba al zenekien...

Azken urteetako ohiturari eutsiz emakumeek afaria izan zutela martxoaren 8an Umore Onan. Juanantonio eta Felixek prestatu zuten afaria goxoa, «mimoz prestatua eta giro politean» eta lerro hauen bidez «eskerrak eta muxu bana» eman nahi dizkiete emakumeek sukaldariei.

LEITZA

JENDARTEA → MOZIOA ONARTU DU UDALAK

Maxurrenea herriari bueltatzea eskatu dute

JM BARRIOLA

Maxurrenea Herrintzat ekimeneko kideak, herri eragile desberdinetako partaideak bildu zituzten martxoaren 14ko agerraldian, eraikina herriari itzul diezaioten aldarrikatuz. Eragile horien artean zeuden Leitzako Herrira, Aurrerako komisio desberdinak, Jaiki Abesbatza, Sarriongo Langile Komitea, ELA, LAB, Bilgune Feminista edota, gazte mugimenduko taldeak... Desagertutako Amazabal Patronatuak (Maxurrenea eraikinaren jabeak) eta gaur egun herritarrek ongizatearen inguruan dituzten kezak berdintsuak direla azpimarratu dute. Horren harira eraikinaren historia gogora ekarri dute, nola Jose Perurena zenak etxea Amazabal patronatuari eman zion bertan jardueraren *beneficio-docente* desberdinak egiteko.

Gaur egun Nafarroako Gobernua da eraikinaren jabea. Honek, urte luzez etxea hutsik eta erabilerarik gabe izan zuen. Eta makina bat ahal gegin zituzten Udalak zein herritarrek Maxurrenea herriari itzuli eta, Patronatuaren izpirituari eutsiz, etxeari erabilpen kulturala emateko. Leitzarren eskaera honi entzungor, 2002 urtean Nafarroako Gobernuak, Maxurrenea Espainiako Gobernuari arrendatzea

erabaki zuen eta honek etxea, Goardia Zibilen koartel bihurtu zuen.

Erabaki horren 10 urte beteta, uste dute aukerak daudela Nafarroako Gobernuak arrendamendu-kontratu hori atzera bota eta behingoz leitzarren nahi eta beharretarako Maxurrenea herriari itzultzeko.

Agerraldiaren ondotik, Udalbatza berezia burutu zen. Plataformak mozioan eskatutako puntu guztiak gehingoz onartu ziren. Beraz, eraikina kultur azpiegiturara bideratzeko asmoa azaldu du Udalak eta horrekin batera Maxurrenea Udalaritzaren eta Espainiako Gobernuarekin duen kontratua bertan behera uztea eskatuko dio Nafarroako Gobernuari.

Maxurrenea Herrintzat Plataformako kideek adierazi dutenez, datozen hilabeteetan hainbat ekintza eraman nahi dituzte aurrera. Udalean aurkeztutako eskaera berbera Nafarroako Gobernuari egingo diote, hots, etxea herriari itzultzea kultura beharretarako erabilpena eman ahal izateko. Horretarako bi bide jorratuko dituzte: talde-parlamentari desberdinekin bilkurak eta herri babes lortzeko sinadura bilketak. Horiek hasteko izan ere helburua lortu arte lanean jarraitzeko asmoa daukate eta.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Hainbat eragile bildu ziren Maxurrenea herrira bueltatzea eskatzu.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Erleta eskolako umeak zuhaitzak landatzen

Martxo hasieran, Erleta eskolako 5. mailako ikasleek zuhaitzak landatu zituzten. Udalak eta eskolako arduradunek adostu ondotik, giro ederrean mendira joan ziren eta Mendibil inguruan frutarako gaztainondoak landatu zituzten. Azken urteotan Udalak, proba moduan, tinta gaitzaren aurka tratatutako gaztain landareak landatu ditu. Aurten, Erletako ikasleek 50 bat zuhaitz sartu zituzten bide bazterrean, etorkizunean bakoitzak jakiteko zein arbol landatu zuen eta nolako gaztainak ematen dituen.

Zinema denboraldia bukatu da urria bitarte

Martxoko lehen asteburuko saioarekin, denboraldiko zine emanaldiak bukatu dira, urria bitartean. Aurten 16 filma bota dira guztira, eta lehengo urtean baino jendea gehiago ibili omen da pelikulak ikusteko. Datorren urrian hasiko da denboraldi berria, herrian pelikulak ikusteko aukera ederra.


oreka
nutrizioa eta dietetika
belardenda

ttipi txartela

%5eko
DESKONTUA
kontsulta eta
produktuetan



Zendow#neo aurkezten dugu
Errefortzu termikoa duen PVC-ko
perfil berria



$U_f=1,0$
 $W/m^2\text{°K}$

U_f = Perfilak duen isolamendu termikoa
(Gero eta U_f txikiagoa, isolamendu hobea)

ALUMINIOA
ZUBI TERMIKOAREN
HAUSTURARIK
GABE
*Aluminio sin
rotura de
Puente Térmico*



$U_f=5,6$
 $W/m^2\text{°K}$



%560
isolamendu
gutxiago

ALUMINIOA
ZUBI TERMIKOAREN
HAUSTURAREKIN
MARKOA 77 mm.
(Poliamida > 18mm)
*Aluminio con rotura
de Puente Térmico
Marco 77mm.
(Poliamida > 18mm)*



$U_f=3,1$
 $W/m^2\text{°K}$



%310
isolamendu
gutxiago

PVC ESTANDARRA
(Altzairuzko errefortzua)
*PVC standar
(Refuerzo de acero)*




$U_f=1,3$
 $W/m^2\text{°K}$



%30
isolamendu
gutxiago

**PVC
ERREFORTZU
TERMIKOekin
Zendow#neo**



$U_f=1,0$
 $W/m^2\text{°K}$

**ISOLAMENDU TERMIKORIK HAUNDIENA
DUEN PERFLA DAUKAGU!!**

ETORRI GURE INSTALAZIOAK ETA GURE SISTEMA BERRIA IKUSTERA!

Leihoak | Kontraleihoak | Sarrerako Ateak | Itxidurak | Pertsianak | Moskiterak

Ordoki ind. • ARIZKUN | T. 948 453 259 | F. 948 453 423 | betikopvc@betikopvc.com | www.betikopvc.com

BAZTAN

GIZARTEA → TURISMORAKO BALIABIDEAK

Herriko mapa eta gida turistiko berriak aurkeztu dituzte

Elizondoko Turismo Bulegoaren seinalizazioa ere hobetu da

TTIPI-TTAPA

Baztanek ez zuen bisitariari eskaintzeko plano turistiko bat ez eta herri guztiak, historia, kultura eta intereseko informazioak jasotzen zituen gidarik ere. Izan ere, azken urteotan karriken izendegiak argitaratu baziren ere, horietan ez da jasotzen Baztanek turistek eskaini ahal dizkieten interes-gune eta baliabide turistikorik. Baztango Turismo eta Merkataritza Batzordean azaldu zen kezka honi aterabidea eman zaio. Dorrea Elkarteak bere laguntza eskaini zion Udalari, bai plano bai gida turistikoa prestatzeko. Hainbat hilabetetako lanaren ondorioz, Dorrea Elkarteak Udalaren esku jarri ditu kalitate artistiko bikaina dituzten plano eta gida turistikoa.

Plano eta Gida Turistiko horiek aurkeztu zituen martxoaren 8an Maite Iturre zinegotziak. Plano turistikoak bertatik, irudien bidez era-

kusten ditu Baztanen bisitatu beharrekoak, eta bertetik, Elizondoko erdigunea, baliabide kulturalak, turismo aktiboko enpresak, bisita gidatuak eta bertzelako zerbitzuen informazioa eskaintzen du.

Gida turistikoak Baztani buruzko informazio orokorra eskaintzen du (geografia, historia, kultura, gastronomia, produktuak...), eta horretaz gain, herriz herriko informazioa. Dokumentu mardula denez, interneten bidez eskuragai izanen da. Modu berean, Turismo Bulegoan gidaren bertsio multimedia kontsultatu daiteke dagoeneko.

Baztango landaetxe, ostatu, merkataritza eta turismoarekin lan egiten duten guztiei dei egin zien Maite Iturrek Turismo Bulegora hurbiltzeko: bertan gida turistiko multimedia ezagutu eta Baztango plano turistiko berria jaso ahal izanen dute, eta modu horretan, Baztan bisitatzeko erabaki dutenei zerbitzu hobea eskaini ahal izanen diete.

TURISMO BULEGORAKO SEINALIZAZIOA

Bertze aldetik, azken hilabeteetan buruturiko

Turismo eta Merkataritza Batzordeetan behin eta berriz azaldu den beharra Turismo Bulegoaren seinalizazioa eta bertan eskaintzen den informazioa hobetzea izan da. Izan ere, Turismo Bulegoa Puriosenea etxean jarri zenean seinale guti batzuk jarri ziren turistak horaino gidatzeko, baina argi ikusi zen seinale horiek ez zirela aski eta oraindik nahasmena zegoela Turismo Bulegoaren aurreko kokapenarekin.

Hori dela eta, azken hilabeteetan autoendako zein oinezkoendako seinalizazioa nola hobetu aztertzeari ekin zioten Baztango Udaleko



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztango mapa turistikoa.

Turismo eta Merkataritza Zinegotzietatik. Kasu bietan egiten diren ibilbide ohikoak identifikatu zituzten eta, horretan oinarrituta, seinale berriak jarri dira.

Azpitarratzekoa da Baztango Udala egin dela lan guzti hauen kargu, Nafarroako Gobernuak ez baitu hobekuntza hau egiteko laguntzarik eskaini.

ELKARTEAK

Baztango Mutildantzari Taldea sortu da

TTIPI-TTAPA

Baztango Mutildantzari Taldea ize-neko kultur elkarteak bere lehen baztango orokorra egin du martxoaren 2an. Mutildantza, Baztango dantzari nabarmenena ezagutaraztea da taldearen helburua. «Hemeretzi dantzaz osatzen diren Mutildantzak, gure aitzineko belaunaldiak aurreko mendeetan dantzatzeko zuten bezala dantzatzeko Baztan bailarako 15 herrietan da gure nahia». diote.

Azken urte hauetan, hainbat herrietan, Mutildantza ez da dantzatzeko

herriko bestetan, eta horregatik Baztango gizon eta emakume talde hau bildu da zerbait egin nahian. Oraingoz, 60 kidek osatzen dute elkartea.

Baztango Mutildantzari Taldeak bere burua eskaini du herriko bestetan edo elkarteek antolatutako ekitaldietan parte hartzeko.

Elkarteko kide egiteko aski da Elizondoko Foto Mena edo Eskiz informatika dendara jotzea.

Harremanetarako helbide elektronikoa honako hau da: baztango-mutildantzari@gmail.com

Ibon Urtiaga
Fisioterapia Zentrua
www.fisioibon.com
948 250 221
Erletokieta, 9 · IRUÑEA

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

MENDIALDE
Jatetxea
T. 948 453 060 · AMAIUR
www.mendialdea.com

UDALA → BERDINTASUN POLITIKAK

Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Plana martxan paratuko du Udalak

Lau urterako lana finkatuko dute eta lehenik egoeraren diagnostikoa egingen da

TTIPI-TTAPA

Egoeraren diagnostikoa egitea izanen da Baztango Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako lehenbiziko plana egiteko lehen urratsa, Udalak martxoaren 13an jakinarazi zuenez. Proiektu hau planteatzeko bi arrazoi nagusi daude: lan tresnarik egokiena dela, alde batetik eta dirulaguntza jasotzeko plana egitea ezinbertzekoa dela. Planaren arduradun teknikoa Iruñe Gaston Ripa izanen da, Udala Berdintasun Teknikari eta Irene Iribarren Garbalena administrari lanetan ariko da.

Udaleko Berdintasun Arloa 2011n sortu zen eta gero, 2012ko abuztuan Nafarroako Gobernu eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko dirulaguntzen bitartez, berdintasun teknikaria kontratatu zen. Nafarroako 22 udal edo Mankomunitatetan berdintasun teknikaria kontratatua dute gaur egun. Baztanen, orain arte, Berdintasun Zerbitzutik

zenbait jardura (sentiberatze kanpainak, ikastaro, solasaldi, antzerki...) antolatu dituzte baina aurten proiektu handiago baten barnean murgilduta daude, helburuak zehazten eta lehentasunak egiten lagunduko duena, Baztango Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako I Plana.

Plana egiteko beharrezkoa dute lehenago Berdintasun Diagnostikoa egitea, hori baita Baztanen argazkia ematen duena, aukera berdintasuna eta parekidesuna ematen den edo ez den ematen azalertzeko. Diagnostikoak hainbat arlo izanen ditu aztergai: hezkuntza, kultura, kirola, udal administrazioa, parte-hartze politiko eta soziala...

Argazkia osatzen, Plana burutuko da. Honek markatuko du non eta zertan beharrezkoa den lana, berdintasun eza edo diskriminazioak ekiditeko eta zuzentzeko. Berdintasuna modu eraginkorrean lantzeko zeharkakotasuna ezinbestekoa da, horretan ere lagungarria da Plana. Planak hurrengo 4 urtetarako lana finkatuko du.

Honekin batera, urte urte plangintza egingen da, urte bakoitzeko Planeko atal batzuk landuz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Sahararen egoera eta lehen sorospenak hizpide Elizondon

Mendebaldeko Sahararen egoera lantzeko, hiru saio egin dituzte Elizondoko Institutuan, Juainas Paul historialari, aktore eta Saharaztan elkarteko kideak bertzeak bertze, lagundurik eta gidaturik. Martxoaren 4an, 'Mapen bilakaera' azaldu zien Juainasek ikasleei, Europar kolonialismoaren nondik norakoak azaldu zituen, azkenik, gaur egungo Mendebaldeko Saharara nola iritsi garen ulertzeko. Martxoaren 11ko saioan *Fatimetu* dokumentala ikusi zuten eta martxoaren 18ko saioan, Saharaztan elkarteko kide den Mirentxuren esperientzia ezagutu zuten. Bertze aldetik, Elizondoko Osasun Zentrotik hiru erizain joan ziren institutura martxoaren 7an, zenbait ikasleri Lehen Sorospeneko emanaldi bat eskaintzera. Elizondoko Loinaz Azurmendi Gaztelumendi, Sunbillako Isabel Arretxea Irigoien eta Berako Ana Ariztegi Etxenike hurbildu ziren, botikan zer izan behar den, eta erredurak, zauriak, zintzurra trabatu edo arnasbideak ixten direnean zer egin behar den edo bihotza berrindartzeko aholkuak azaltzera.



UTZITAKO ARGAZKIA

Familian euskaraz jolasean aritu ziren Elizondon martxoaren 9an

Hainbat gurasok, seme alabekin batera, AEK-k, Udaleko Euskara Zerbitzuek lagunduta eta Korrika Kulturalaren baitan antolatutako *Familian euskaraz jolasean* tailerrean parte hartu zuten martxoaren 9an. Denera 30 guraso eta 4-8 urte bitarteko 40 haur elkartu ziren. Tailerra Urtxintxa Eskolako hiru begiralek bideratu zuten eta helburua gurasoen edo familiako kideen parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzea izan zen, ezaguna baita jolastuz eta abestuz haurrek zenbait gaitasun eta trebezia garatzen dituztela eta, gozatzen duten bitartean, euren euskararekiko motibazioa, ezagutza eta erabilera areagotzen dela. Gurasoen erranetan, esperientzia ederra izan zen, jolasaren bitartez hizkuntza ezagutzeko eta ikasteko aukera izan baitzuten bai haurrek baita gurasoek ere. Tailerra akituta, familia bakoitzak bertan landutako jolasen kantzak biltzen dituen CD bat izan zuen opari. Antolatzaileen erranetan, bereziki positiboa eta poztekoa da halako ekitaldietan gurasoak parte hartzeko prest egotea.

BAZTAN

ERREPIDEA → ELIZONDOKO SARBIDEA

Saihesbideko lanak akitzeko eskatu du Elizondoko alkateak

Apirilaren 1ean bilduko da Sustapen kontseilariarekin

TTIPI-TTAPA

N-121B errepidean Arraioz-Elbete saihesbideko lanak akitzea eta Elizondoko sarbidea irekitzeko Baztanberriko zubia lehenbailehen egitea eskatu dio Mikel Sobrino Elizondoko alkateak Nafarroako Gobernuak Sustapen departamentuari.

Martxoaren 15ean egin zuen agerraldia, Baztango udal ordezkariarekin batera. Bertan jakinarazi zuenez, egun horretarako kontseilariarekin bilera egitekoa zuen, baina apirilaren 4ra bitarte gibelerratu zuten Iruñetik. «20 egune-

ko atzerapena ez du garrantzizkoa iduri, baina kopetaraino gaude, 15 urte baino gehiago daramazkigu Elizondoko bariantearekin bueltak eta oraindik ez dugu bukaera garbirik ikusten» zioten.

Martxoaren 22an elkarretaratzea egin zuten oraindik ireki gabe dagoen sarbidean eta bertze horrenbertze egiten dute apirilaren 5ean. Apirilaren 4ko bileraren ondotik, berriz ere batzarrera deituko dituzte elizondarrak. «Nafarroako Gobernuak elizondarren eta gainerako baztandarren kezka aditzea nahi dugu eta onartu zen moduan lanak akitzea, saihesbidea Santiago karrikarekin lotzen duen zubia eginez», erran zuten.

KULTURA → AHOZKO ONDAREA

Fonoteka kontsultatzeko aukera dago liburutegian

TTIPI-TTAPA

Baztango udal liburutegian fonotekaren aurkezpena egin zen martxoaren 19an.

Fonoteka egiteko ideia iaz sortu zen, Eusko Kulturek ondare ez-materialaren bilketa egin eta Baztango udalarekin harremanetan paratu zelarik. *Baztan solasean* lanerako ahozko tradizioaren bilketa egina zegoela ikusirik, bilketa hori zabaltzea inportantea zela iruditu zitzaion Udalari, belau-

naldiz belaualdi ahoz aho transmititu den horri herritarren esku uztea, historia bizi izan dutenen ahotik aditzea eta herri jakintza denon esku uzteko helburuarekin. Liburutegian ez ezik, Museo Etnografikoan ere paratu nahi dute.

Hau guztia azaltzerat, Baztango Ondare ez-materialaren bilketan aritu zen Maite Laka etorri zen. Aurkezpenan fonoteka zer den, helburua zein den... azaldu zituen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ernesto Prat-i elkartasuna adierazteko hainbat lagun bildu ziren martxoaren 19an.

ELKARTASUNA

Ernesto Prat-en epaiketa salatzeako manifestazioa egingen da apirilaren 7an Elizondon

TTIPI-TTAPA

Epaiketa gehiagorik ez! Eskubide zibil eta politikoen alde! Ernestorekin elkartasuna goiburupean, Ernesto Prat-ekin elkartasun manifestazioa egingen da apirilaren 7an, igande arratsaldeko 6etan Elizondoko plazatik abiatuta. Ernesto Prat Urzainki elizondorra apirilaren 9an epaituko dute entzutegi nazionalen, EKIN lege kanporatutako erakundekoa izateaz akusatua. Fiskalak 8 urteko kartzela zigorra eskatzen du.

«Izaera politikoko epaiketa hau eta euskal herritarrek oraino jasaten duten jazapen politikoa» salatzeako Baztanen herritarren bilgune bat la-

nean hasi da. Honela, manifestazioaz gain, apirilaren 9an Madrilan egingen den epaiketarat joateko autobusa antolatu dute. Intzan eta Zubipuntan eman beharko da izena eta autobusa eta bertze hainbat gastu ordaintzeko apirilaren 6an kontzertua egingen da Elizondoko Gaztetxean. Gaiaren inguruko mozioak ere aurkeztu dituzte Baztango Udalean eta batzar nagusian. Udalak gaugeru onartu du eta batzar nagusian apirilaren 2ko saioan eztabaidatuko dute gaia.

Herritarren agerraldi jendetsua egin zuten martxoaren 19an, Ernesto Prat-i elkartasuna adieraziz.

GIZARTEA → INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEK LEHENTASUNA IZANEN DUTE

Irurritako Sagues Fundazioko etxeak beharrean daudenek erabiliko dituzte

TTIPI-TTAPA

Sagues Fundazioak Irurritako herritarren eskaera jaso zuen etxeen egoera argitu eta antolatzeke. Sei etxebizitzak *pobrezia*n bizi diren familientzat erabili behar direla diote estatutuek, baina azken hamarkadetan ez da hori bete. Herriko eskaria ikusita, eta Bidelagun taldeak egindako bertze eskaera baten ondorioz, etxeen berrantolaketa eta estatutuen eguneratzea egitea erabaki da. Indarkeria matxistaren biktimek eta bazterketa egoeran daudenek lehentasuna izanen dute, eta horien artean, Irurritako herritarrek lehentasuna izanen dute.

Erabiltzaileen egoera soziala urtero aztertuko da, eta hobetzen dene-

an, etxea utzi eta behar handiagotan daudenek hartuko dute. Orain bizi direnen artean, hiru familiek betetzen dituzte irizpideak. Bertze bi hutsik daude, eta hirugarren batek ez ditu irizpideak betetzen; beraz, etxea utzi egin beharko du. Momentu honetan badaude etxebizitzaren beharrean dauden familiak eta horiei utziko zaizkie libre geldituko diren bi. Bertze bat konpondu beharra dago, eta konpontzen denean, Bidelagun laguntza emaile taldeari utziko zaio, Emergentziatzeko etxe gisa erabiltzeko. Hutsik dauden etxeetan bor sartu behar den erabaki baino lehen, beharrean daudenei Gizarte Zerbitzuetan izena emateko deialdia egin zaie.

Nafarroako Mendialdeko garapena da gure apustua

Gure eskualdean lan egin eta bizitzeko apustua egin zuten eta horretan dihardute

Inguruneak eskaintzen dituen baliabideak izan ziren batzuen abiapuntua, belaunaldien arteko lekuko aldaketa bestea. Gure eskualdean lan egin eta bizitzeko apustua egin zuten eta horretan dihardute. Kriaren eta kontsumo ohituren eraginez, beraien oraina eta etorkizuna ez daude ziurtatuta. Hala ere, ez dute etsi eta bide berriak lantzen ari dira. **Cederna-Garalurrek**, Nafarroako Mendialdeko garapen elkarteak, laguntzen die horretan, aholkatuz eta irtenbideak emanez. Elkarrekin egoera aldatu dezakegu. **Anima zaituzte!**

Iruñe ALKORTA



Enpresa: Garbi drogeria eta lurrindegia
Herria: Leizta
Noiztik: Dendak 40 urte baino gehiago daramatza zabalik, amaren lekukoa hartu zuen duela urtebete.

Zerk bultzatu zintuen lanbide horretan has- tera?

Duela 40 urte baino gehiago ireki zuen denda nire familiak. Ni enpresaritzat ikasketak amaituta, etxetik kanpo ari nitzen lanean amak jubilatza zera zihoala esan zigunean. Bere lekukoa hartzea eskaini zigun eta dendaren inguruan hazi garenez, proba bat egitea pentsatu nuen. Amaren lanari segida emateaz gain, jendearekin zuzenean lan egitea betidanik gustatu izan zait. Ez naiz damutzen pauso hori eman izanaz.

Zein da familiako enpresa batek irauteko sekretua?

Gakoa lanbidea izatez gain, bizitzeko modu bat ere badela ulertzea da. Ilusioa behar da, gauzak aldatzeko eta hobetzeko gogoia. Herriari zerbitzu bat ematen ari zarenean sentsazioa ere oso aberasgarria da. Herriaren beharra dugu guk lanean segitzeko eta herriek gure beharra dute bizirik irauteko.

Cederna-Garalurrek zertan lagundu zaitu?

Hasieran eman behar diren pauso administratibo guztiak argitu zizkidaten, autonomoenak, finantziaketak, diru-laguntzak... Horretaz gain, antolatzen dituzten ikastaroetan ere parte hartu dut eta aukera berriak jarri dizkirate aurrean.

Zeintzuk dira etorkizuneko lanildoak?

Dendaren itxura berri du, produktu berrizaila batzuk sartuko ditut baina garai bateko eskaintza ere mantenduko dut, beste tokietan bilatzeko zailak diren produktuak eskaintzen segiko dut. Bezero berriengana iristea da nire helburua baina, lehengoeri ere etsiz. Iragana, oraina eta etorkizunaren arteko oreka bilatzea ezinbestekoa izango da etapa berri honetan.

Mariado ITURRALDE



Enpresa: Utxunea landetxea, ezinduentzat egokitutako etxea
Herria: Donamaria
Noiztik: Nekazaritza lanean jardun du betidanik, iaz urri-
an ireki zuen landetxea.

Zergatik erabaki zenuten iaz landetxe bat zabaltzea?

Anaia eta biok nekazariak gara eta beti pentsatu izan dugu guk eman behar diogula balioa inguruan dugunari. Gure lurrari, egin ahal ditugun produktuei eta baita gure bizitzeko moduari ere. Ikusita azken urteetan nekazaritzak gainbehera nabarmena izan duela eta egoera ez doala hobera, garai berrietara egokitzeko tenorea zela sumatu genuen. Gure bizimodua eta lanbide berria uztartzeko modua landetxe bat zabaltzea zela erabaki genuen.

Ez da ohiko landetxea ordea...

Eskaintzen dugun zerbitzua berezia da, landetxea ezinduentzat guztiz prestatua baitago. Sentsibilitate handiarekin egina da. Etxe guztian zehar mugitzen ahal da gurpildun aulkian dagoen norbait, itsu bat... Denei eman nahi diegu gure inguruneaz gozatzeko aukera.

Buruan zenuten ideia hori nola garatu ze- nuten?

Cederna-Garalurrekin kontaktuan jarri eta haien laguntzarekin landetxearen proiektua planteatzen hasi ginen. Administratiboki lagundu digute gehienbat, baina baita luzera begirako irtenbideak eman ere. Pixkanaka buruan genuen ideia lantzen eta garatzen joan ginen.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Irudimena martxan jarri eta gure ingurunea ezagutzera emateko bideak landu behar ditugu uste dut. Guk eman behar ditugu aurrepausoak konponbidea ez baitzaigu zerutik etorriko. Kokaleku pribilegiatu batean gaude eta ematen dizkigun aukerak baliatu behar ditugu herrian lan egiten jarraitu nahi badugu.

Goio HUALDE



Enpresa: Urdazubiko lezeen kudeaketa eta eskaintza turistikoaren promozioa.
Herria: Urdazubi
Noiztik: Duela hamabi urte hasi zen lezeen kudeatzaile lanetan.

Zergatik egin zenuten bertan lan egiteko apustua?

Duela hamabi urte, langabezian nengoen aukera honen berri izan nuenean. Turismo sektorean lan egina nintzen alde aurretik, baina beti bertzeendako. Urdazubiko lezeak kudeatzea aukera polita iruditzen zitzaidan, nire baitatik lan egin eta eskualdean bertan lanean aritzeko aukera ematen zidalako.

Zein paper izan du prozesu honetan Ceder- na-Garalurrek?

Laguntza handia eman zidaten bai hasieran eta baita gerora ere. Errekurtso turistiko hau interesatzen zitzaidan, erronka hau aurrera ateratzeko gai sentitzen nitzen baina inoiz ez nuenez bakarrik lan egin galdu xamar nengoen. Cederna-Garalurrek lagundu zidan finantzaketa planarekin, administrazio aldetik... eta gerora berrikuntzak sartu nahi izan ditudanean ere beraien erran didate zein ate jo behar nituen.

Zertan aldatu da urte hauetan eskaintzen duzun zerbitzua?

Urteen poderioz garatzen joan da. Lezeetako bisitak osatuagoak dira. Inguruak konpondu ditugu, harrera lekuak berri... Inguruko turismo sektoreko enpresak elkarlanean ari gara eta hori guztiontzat mesedegarria da.

Zein da enpresa egonkorteko sekretua?

Konstantzia beharrezkoa dela iruditzen zait. Aunitzek diote, kriaren aurrean iraun egin behar dela. Nire ustez, duguna mantentzen saiatu behar dugu baina bide berriak ere irekiz. Behin hartutako bidea akitu bada, jakin behar duzu pauso batzuk gibelera eman eta inguruak eskaintzen dizun horri etekina ateratzen.

GARAPEN AGENTEAK

Arantxa Arregi, 606 43 13 57 / bidaso@cederna.es • Izaskun Abril, 606 40 86 13 / baztan@cederna.es • Elena Irigoien, 617 60 93 28 lekunberri@cederna.es

Cederna Garalur Alkaiaga Industrialdea, Alasta 2B • Ordutegia: 09:00 / 16:00 • 948 62 51 22 • bidaso.admon@cederna.es



SARA

KIROLA → LEHENDAKARIA ALDATUKO DA UZTAILEAN

20 urteak ospatuko ditu Urtxintxak eskubaloi taldeak

Orotara 70 lizentziatu ditu gaur egun

Joana GUERENDIAIN

Aurten esku baloi elkarteak bere 20 urteak ospatuko ditu. Gaur egun 5 ekipa kondatzen dira eta esku baloi eskola bat, orotara 70 bat lizentziatu. Elkarteak orain arte bere partaideen borondateari esker martxan ibili da. Azken denbora hauetan, kezka batek elkarteak mintzen du, heldu den biltzar nagusian, uztailean, Sabine Etchevestek bere lehendakari kargua utziko du, beraz ordezko bat atxematea baitezpadakoa da! Beraz beren denbora eman nahi duten eta motibatuak diren guztiak ongi etorriak dira!

Bazkoko asteburua

Usaian bezala Bazkoko asteburuan ekin-tza ezberdinak antolatuak dira. Martxoaren 28-tik apirilaren 1era Oihain ikastolak Herri Urratseko arropak salduko ditu plazan, goizeko 10etatik arratsaldeko 6ak arte. Martxoaren 30etik apirilaren 1era Lur Berri gelan esku lana erakusketa bat antolatzen du; atea goizeko 10etatik arratsaldeko 9ak arte idekiak izanen dira. Martxoaren 31etik apirilaren 1a arte, Larrungo koloreak margo erakusketa bat egiten du Denen etxean. Martxoaren 31n, igande goizean 9etatik eguerdi arte, Sarako Urtxintxek pastizak eta xokolateak salduko di-



ARGAZKIA: JOANA GERENDIAIN

Marie eta Ximun Herriko Ostatuaren barraren gibelean

Martxoaren 1etik Marie eta Ximun atxematen ahal dira herriko ostatuaren barraren gibelean. Bi saratar gazte hauek Maixan eta Veroren segida hartzea erabaki dute, herriaren bizian inportantea den leku hori biziarazten segitzeko. Kuraia on haiei eta denbora ona pasa dezatela! Bertzalde, martxoaren 9an besta bat egin da polikiroldegian Vero eta Maixan eskertzeko, kantuak, bertsuak, dantzak ukan zituzten eta Zpeziz mukaki taldea espresuki berriz muntatu zen honen karietara. 350 bat pertsona hurbildu ziren gau goxo bat pasatzeko!

tuzte plazan. Gauean, Sarako ondareak antolaturik, Atsulai eta Kantauri abesbatzek kantaldi bat emanen dute elizan, sartzea 8 eurotan. Bazko Astelehenean, nolaz ez, XXX. Idazleen Biltzarra egiten da polikiroldegian.

Joko berri

Joko berri txapelketaren finalak apirilaren 13an jokatu dira polikiroldegian, arratsaldeko 4 etatik goiti. Bertan ostatu bat izanen da eta taloak ere salduko dira.

Xoko txapelketa

Pleka trinketeko xoko txapelketa apirilaren 15etik uztailearen 27ra iraganen da. Izen emaitzak apirilaren 7a arte idekiak dira, 25 euro kostatzen du pertsona-ka.

Euskaltzaindia **Sarako XXX. Idazleen Biltzarrean** apirilaren **1**ean, astelehenean

Aurkezpena:

ANTOINE D'ABBADIE, ABBADIAZ

Egilea: Jean-Louis Davant

GAINERATEKOEN BILDUMA

Egilea: Gratien Adema "Zaldubi"

Paratzailea: Henri Duhau

JON MIRANDE, OLERKARIA

Jon Mirande poète parisien

Egilea: Txomin Peillen Karrikaburu



Laguntzailea:

Euskararen erakunde publikoa

Office public de la langue basque



www.euskaltzaindia.net

GIZARTEA → ARGAZKI ERAKUSKETA EGIN NAHI DUTE

Arretxea kolegioaren 60garren urtemuga haundizki ospatuko da ekainaren 15ean

‘Lau urtaroak Arretxean’ ikusgarria plazaratuko dute ikasleek

Franck DOLOSOR

Heldu den urtean, 60 urte beteko dira Arretxea mutikoen eskola kolegio bilakatu zela 11 eta 15 urte arteko ikasleentzat. Dena den urtemuga ekainean berean ospatuko da Gérard Luc musika irakasleak erretiroa hartu baino lehen hain zuzen. Ekainaren 15ean gaualdi berezia ospatuko da Gantxiki kirolzelaian. Dantza, antzerkia, musika eta bideoak nahasiko dituen “Lau urtaroak Arretxean” ikusgarria plazaratuko dute kolegioko ikasleek. Egun hauetan, buru belarri ari dira dena prestatzen irakas-

leen laguntzarekin. Erakusketa bat ere apailatzen ari da eta hori osatzeko aspaldiko argazkiak miatzen dituzte bestaren antolatzaileek. Sare sozialen bidez edo kolegiorat erematen ahal dira Senpereko eta Sarako familia aintzek dituzten argazkiak.

4000 euro Saint Christopheko gazteentzat

Crédit Agricole mutual Pyrénées Gascogne erakundeak 4.000 euroko diru laguntza eman die Saint Christophe laborantza lizeoko ikasleei. Egitura hunek gazteek dituzten proiektuak diruz laguntzen ditu eta gustokoa izan du mendi bizikleta inguruan Senpereko gazteek prestatu duten proiektua. Dirutza hunekin 12 txirindula ero-



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSORREN ARTXIBATEGIA

Arretxea eskolako ikasleak bi garai arras desberdinetan: 1960ko hamarkadan Graxi Bonnet Jeannou irakaslearekin eta 2012ko udazkenean Angeluko hondartzarat egin zen ateraldi batean.

si ahal izan dituzte beren ikasketak egiteko naturan eta gure bazterretan barna ibiliz.

Lanak herrian

Jaiberriko eta Zaiako bideak zabaldu ditu herriko etxeak. Lanak berriki bururatu dira eta ondoko asteetan ain-

tzirako obra handia burkatuko da. Joan den udazkenaz geroz, ur zikinak eta euria eta biltzeko hodiak berritzen dituzte Ortzango erreka osoan.

500 korrikalari Senperen

Jokin Lizeaga, Ionut Zin-

ca errumaniarra eta Benoît Cori uztariztarra izan ziren zaluenak martxoaren 10ean ospatu den Senpereko trail 21 kilometroko lasterketan.

Denerat, kasik 500 lagun ibili ziren lasterka Ibarrundik, Santa Barbara, Bizkarzun, Esnaur eta Suhalmendin barna.

benta berri
ostatua jatetxea
Ibardingoa gaina · BERA · Nafarroa · benta-berri@hotmail.com

ERRESERBAK
948 630 708

DESKONTUA
Bono hau erakutsita %10eko DESKONTUA (menu berezietan izan ezik)

MONTXO OSTATUA TABAKO-BENDA

Plater konbinatuak | Ogitarrekook | Pintxoak | Menuak enkarguz
Egunero irekia 09:00etatik 02:30era · Dantzarineatik 2 km. tara
ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039



Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerrako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria
- ...

Bidasoa. 12 • BERA • 948 631 425

EZKONTZAK

Hilarion Sukilbide Olazar eta **Luis Miguel Cambra Martinez**, Elgorriaga eta Calatoraukoa (Zaragoza), martxoaren 16an Elgorriagan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



kukuka
HAIZE ARDOPA DEKORAZ

BÓBOLI name it.

W HATS UP! **iDO**
NIÑOS CREATIVOS

Zazpigerutze, 1 • DONEZTEBE • 948 450 252

SORTZEAK

Sacha Pamart, Sarakoa, otsailaren 20an.

Mailyne Brabant, Sarakoa, martxoaren 14an.

Alaitz Aioroa Goñi, Iturengoa, otsailaren 16an.

Gabai San Martin Etxarte, Iturengoa, otsailaren 27an.

Mikel Bergara Zubieta, Doneztebe-koa, martxoaren 7an.

Naia Telletxea Gogorza, Doneztebe-koa, martxoaren 12an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



Belen
Loradenda Floristeria

AUKERA ZABALA LORETAN

Intzakardi, 8 • DONEZTEBE
T. 948 451 758

HERIOTZAK

Mario Jorajuria Arretxea, Sunbilla-koa, martxoaren 6an, 82 urte.

Gregorio Ordoki Biurrarena, Arantzakoa, martxoaren 6an, 85 urte.

Julian Serrano Sobrino, Elizondokoa, martxoaren 7an, 84 urte.

Fabiola Zarra Salaberria, Lesakakoa, martxoaren 7an, 71 urte.

Maria Eugenia Ezkurra Goienetxe, Zozaiakoa, martxoaren 7an, 92 urte.

Juan Iñarrea Argain, Almandozkoa, martxoaren 8an, 80 urte.

Tomas Goia Artola Toloxa, Arantzakoa, martxoaren 8an, 75 urte.

Maria Begoña Gomez Canales, Berakoa, martxoaren 8an, 85 urte.

Beñardo Lanz Antxordoki, Lesakakoa, martxoaren 7an, 80 urte.

Pascual Fagoaga Altamira, Arantzakoa, martxoaren 7an, 87 urte.

M^a Dolores Etxeberria Zozai, Berroetakoa, martxoaren 9an, 91 urte.

Cornelio Otxandorena Almandoz, Zubieta-koa, martxoaren 10ean, 80 urte.

Pedro Mari Ibarra Telletxea, Nartekakoa, martxoaren 10ean, 50 urte.

Ignacio Carrera Hernandorena, Doneztebe-koa, martxoaren 11n, 85 urte.

Antonio Ariztegi Bera, Iturengoa, martxoaren 11n, 75 urte.



Juan Bautista URROZ EZKURRA

III. URTEURRENA

Beran hil zen, 2010eko martxoaren 20an,
67 urte zituela

Gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizi garen artean
ez zaitugu ahaztuko.

EMAZTEA, SEME-ALABAK, BILOBAK ETA FAMILIA



Fidel ALZUGARAI ALZUGUREN

FaIDEL

I. URTEURRENA

Iruñean, 2012ko apirilaren 6an

Itzalak ginen
argia zara
beti bihotzean

Bere aldeko meza apirilaren 6an,
arratsaldeko 8etan, Altzateko Elizan

ZURE FAMILIA



Sebastian GAINZA ALDZABAL

Beran, 2013ko otsailaren 26an, 82 urte zituela

Eman zenigun zenekiena
ezagutzeko aukera
guztiongatik ur-laster denak
gainditzeakin batera
ta orain zure falta daukagu
falta haundia gainera
gaur zuregatik egingen dugu
indarrez denok aurrera
izokin baten antzera.

SAIOA ETA ASIER

MENDI LASTERKETAK → MANTTALEK ANTOLATUA

Berako Mendi Maratoi Erdia apirilaren 14an

500 korrikalari baino gehiago espero dituzte

TTIPI-TTAPA

Berako IX. Mendi Maratoi Erdia – VII. Ibardingo Saria apirilaren 14an jokatuko da. 500 dortsal jarrituen martxoaren 11n eskuragai lasterketa antolatzearaz arduratzen den Manttale Mendi Lasterketa Taldeak, Agerra Mendi Taldearekin eta Gure Txokoa elkartearekin batera. Segidan, denak agortu ziren.

Berako lasterketako ibilbideak ez du aldaketarik izanen, 21 kilometroko distantzian, 2.714 m-ko desnibel metatua gainditu beharko da. 9,7 kilometro malda gora izanen dira eta 10,9

km behera, gehienezko igoera portzentajea %45 delarik. Froga gogor honen abiapuntua eta helmuga Berako Kiroldegia izango da eta punturik garaiera Larun (900,40 m). Aurtengo edizioan sariak mantenduko dituzte lehenengo bostz sailkatuentzat bai emakumeen kategorian eta bai gizonezkoen. Lehenengoak 300 euro jasoko ditu, bigarrenak 250 eta hirugarrenak, 200 euro.

SARI BEREZIAK

Ibardindik (6,6 km) pasatzen den lehen korrikalariarentzat 150 euroko saria mantenduko da, eta mantendu egingo da, halaber, Didier Zagok frantziarrak ezarritako lasterketako errekorra (1:38:11)



UTZITAKO ARGAZKIA

Manttaleko kideak, Mendi Maratoi Erdiaren aurkezpenean.

gainditzea lortzen duenarentzat izango den 300 euroko saria.

Izena ematen duten guztiei ondoren adierazitako produktuak dituen poltsa bana banatuko zaie: Martikoren produktuak, produktu energetikoak, Lorpen galtzerdiak, eta Craft markako kamiseta bat, eta beharrezkoak dituzten zerbitzu guztiak eskura edukiko dituzte (txipa, dutzak, jan-edatekoak kontroletan eta lasterketa ondoko luntxa). Aurten ezarriko den kronometraje zerbitzuari esker, tarteko denborak ikusi ahal izango dira helmuga puntutik.



Joseba Andoni URDANTZ ETXEBERRIA

1969ko apirilaren 12tik 2002ko apirilaren 2ra

XI. URTEURRENA

*Udaberriak bizia ekarriz
Zure askatasun modua gogoratzen du
Zure ametsak buruan izanik
Zure indarra guria egiten dugu.*

GURASOAK ETA SENIDEAK



Cornelio OCHANDORENA ALMANDOZ

Zubietan, 2013ko martxoaren 10ean, 80 urte zituela

*Adixkide bat bazen
orotan bihotz bera
poesiaren hegoek, sentimentuzko bertsoek
antzaldatzen zutena
Nun hago, zer larretan
Artikutzako artzaina.
Beti gogoan izango zaitugu.*

ZURE FAMILIA



*idatzi duzu zure liburua,
laburra izan da baino polita,
irri egin dugu eta negar,
pozik izan gara zurekin egoten
baino agudo akitu da.*
MAITE ZAITUGU MANOLO
Baztango Lagunak



Tomas GOIA ARTOLA

Arantzan, 2013ko martxoaren 8an, 75 urte zituela

*Beti irrifarrea zenuen lagunmin
gauza denen gainetik aintzinerat ekin
bizitzari helduaz gogo guziekin
indar hau utzi duzu betiko gurekin
maite izan zaitugun familiarekin.*

ZURE FAMILIA

Joan den urtean 23 urtez beheitiko txirrindulari nafarrei zuzendutako Challenge Larequi irabazi zuen Beñat Txoperena Matxikote (Igantzi, 1991) txirrindulariak,

Bidelan Kirologi taldean. 295 puntu eskuratu zituen eta bi garaipen lortu, Lehendakari Txapelketarako puntuagarria zen Tolosako proban eta Galiziako Itzuliko lehen etapan.

Aurten, Eki Sport taldean ari da eta kategoriako azken urtean denboraldi ona osatu nahi du, «profesionaltara salto egiteko momentua» ailegatu zaiola uste baitu.

Beñat TXOPERENA | Igantziko txirrindularia

«Profesionaltara salto egiteko unea ailegatu zait aurten»

Aitor AROTZENA | IGANTZI

Espero zenuen ia ez zure kategoriako txirrindulari onena izatea?

Egia erran ez nuen askorik pentsatu, sari hori bere gisa etorri zen. Nik usate erregularitatearen saria izan dela, batez ere ekainetik aurrera. Karre-askoren lehia ibiltzeko aukera izan dut, eta horregatik azkenean nahiko errex sari hori eskuratzeko aukera izan dut.

Zure lehenbiziko garaipenak ere lortu zenituen... Zeinek inongo zuzen zenuen gehiago?

Tolosakoa berezia izan zen, lehenengoa zelako, eta taldekide neukan Jon Ander Insaustirekin sartu nintzelako. Halere, Galiziakoarekin gehiago disfrutatu nuen. Karreraren nibela altuagoa zen, etapa oso gogorra izan zen, eta jende horren aurretik bakarrik ailegatzea eta mallot horia janztea hagitx polita izan zen.

Erraxa egiten al zaizu txirrindularitza eta ikasketak bateratzea?

Orain arte ez da hagitx erraxa izan, klase asko neuzkalako eta horrek entrentatzeko edo deskantsatzeko denbora kentzen zidalako. Aurten ez dut klaserik, dena aprobatau daukadalako eta proiektua egiten ari naizelako. Lasaia gogor nabil, eta ingles

klase batzuk ere hartzeko aukera izan dut.

Larequi Challengea irabazi duten txirrindulari gehienek profesionaltara pasatu dira. Zuk ere itxaropen hori duzu edo urrun xamar ikusten duzu oraindik?

Aurten momentua ailegatu zaidala uste dut. 23 urtez azpiko azkeneko urtea izan nahi dut, eta pausua emateko momentua da. Horretarako ahalik eta hobekien prestatuko naiz, eta nere aldetik dena ematen dut.

Txirrindularitza profesionalak azken aldian ez du berri onik ematen: Puerto Auzia, Armstrongen aitortpena...

MOVISTAR GOGOKO
«Profesionala izatea jada ikaragarria izan litzateke, edozein taldetan, baina bat aukeratzekotan Movistar egiten nuke. Talde Nafarra da eta mundu mailan onenetakoa. Ametsa izan litzateke bertan ibiltzea. Taldekideentzat lanean ikusten dut nere burua. Jesus Herrada da nere erreferentzia, asko gustatzen zait eta gustura egiten nuke lan bereztat.»

Horreke al dizu txirrindulari profesionala izateko animorik kentzen?

Belaunaldi hori atzera utzi beharra dago. Ezin da ukatu txirrindularitzak iragan iluna daukela, eta hori horrela da. Baina orain pasaporte biologikoarekin dena kontrolatu dago, eta mundu profesionala aunitzez garbiago dago orain dela 10 urte baino, dudarik gabe gainera. Pertsonalki ez dit animorik kentzen gaiak. Halere, momentuan bederen, afizionatuetan segitzen duzu, aurten Eki Sport talde berriarekin...

Kontua da Bidelan enpresak dirurik jartzeko aukerarik ez duela izan, baina taldearen egitura berdina da. Taldekide gehienak berak dira, eta staff teknikoa ere bai, Jon Odriozola buru dela.

Denboraldi honetan zer helburu jarri dizkiozu zure buruari? Berriz ere kategoriako nafarrik onena izan zaitzateke?

Oraingoz nahiko ongi doa prestakuntza. Helburu nagusiak maiatza eta ekainean dauzkate, Bidasoa eta Nafarroako itzuliak, baina ez dut atzendu nahi bai Espainiako Kopako karreretan, eta baita Igantziko karreraz. Helburuak hala ere asteburu dauzkate, edozein karrera ira-



UTZITAKO ARGAZKIA

Beñat Txoperena, Eki Sport taldeko maillotarekin.

baztea edo disputatzea, eta ahalik eta erregularrena izatea. Kalitate salto bat ematea dut helburu, eta profesionala izateko moduko denboraldi bat egitea. Kategoriako nafarrik onena izatea seinala onena izan litzateke, baina ez diot duena baina inportantzia gehiagorik ematen.

Igantzi karrera aipatu duzu. Politza izan litzateke herritarren aitzinean irabaztea...

Herriko karreretan ezin da faltatu. Dudarik gabe irabaztea ikaragarria izan nahi du, baina ez da bat ere

erraxa. Ahal den guzian egiten da lortzeko, edo bederen ahalik eta hobekien sailkatzeko.

Zer ezaugarri dituzu txirrindulari bezala?

Nahiko erregularra naizela uste dut. Oraindik denean hobetu beharra dut, bai igotzen, bai erlojupekoan... Halere nere hutsunerik handiena *sprintean* daukatela uste dut, eta hori hobetzea hagitx zaila da. Desgaste handiko karreretan ongi moldatzen naiz, Galizian irabazi nuen etapa adibide gisa hartuta. Gorabehera handiko etapetan.

PILOTA → MARTXOAREN 9AN LESAKAKO UDAL PILOTALEKUAN

Bortzirietako eskuz binakako pilota txapelketaren finalak jokatu dituzte

Gure Txokoako pilotariak lau final irabazi zituzten, Arkupekoek bi eta Oiarpe eta Txarutakoek bana

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako eskuz banakako 12. pilota txapelketako finalak jokatu zituzten martxoaren 9an, larunbat goizean Lesakan. Zortzi final jokatu ziren eta erdiak Berako Gure Txokoako pilotariak irabazi zituzten. Bi txapel Lesakako Arkupekoentzat izan ziren eta Oiarzungo Oiarpe eta Txarutak bana eskuratu zuten. Ttikien mailan, Arkupe-



ARGAZKIA: FOTO GOIKO

Bortzirietako txapeldun, finalistak eta oroigarria jaso zuten ttiki, ume eta kimu mailako pilotariak Lesakako udal pilotalekuan.

ko Oihan Etxeberriak 18-9 irabazi zion Gure Txokoako Andde Maritorenari.

Umeak B mailan ere beratarra eta lesakarra izan ziren aurrez aurre, baina kasu honetan, Gure Txokoako Andoni Telletxeak 18-9 irabazi zion

Arkupeko Mattin Lekuonari.

Umeak A mailan, Arkupeko Asier Larraldeak 18-3 irabazi zion Txarutako Ibai Bailarenari.

Kimuak mailan, Gure Txokoako Asier Telletxeak 18 eta 11 irabazi zion Ekaitzako Jon Za-

balari.

Haurrak B mailan, Gure Txokoako Titouan Mendyk 18 eta 5 irabazi zion Txarutako Ander Zelaletari.

Haurrak A mailan, Oiarpeko Ekain Etxeberriak 18 eta 9 irabazi zion Errekako

Enaitz Telletxea igantzi-arrari.

Kadete mailan, Txarutako bi pilotarik jokatu zuten finala izan zen berdinuena. Enaitz Antsok 17 eta 14 irabazten zuen, baina azkenean Iker Espelosin sunbiddarrak buelta eman eta 17-18 irabazi zuen, txapela bereganatuz.

Jubeniletan, azkenik, Gure Txokoako Ander Errandoneak 18 eta 14 irabazi zion Txarutako David Albiasuri.

Finalak bukatu ondoren, txapelak eta garaiak eman zitzaizkien txapeldun eta finalistei. Jon Apezetxea pilotari profesionala eta Inaxio Errandonea pilotari ohia aritu ziren lan horretan. Horretaz gain, ttikiak, umeak eta alebin mailako pilotariak oroigarriak izan zituzten.

HERRI KIROLA → AIZKORA APUSTUA DONEZTEBEN

Ruben Saralegi nagusitu zaio Xabier Mindegariari

34 segundoko aldearekin irabazi du leitzarrak

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 10ean, handia zen ikusmina Doneztebeko pilotalekuan. Batetik, Ruben Saralegi leitzarra, eta bertetik Xabier Mindegia Beintza-labaiendarra. Nafarroako bigarren mailako txapelduna bata, txa-

peldun orde berteza, 3000 euroko apustua tarteko. Harmailak leporaino bete ziren, eta ikuskizunak ez zuen hutsik egin. Aurreikusitako bezala, lehia bizi izan zen amaierara arte. Azkenean 34 segundoko aldearekin nagusitu zen leitzarra.

Hamar kana-erdiko eta bi oinbiko ebaki behar izan zituzten. Saralegi kana-erdikoekin hasi zen eta oinbikoa bosgarren lekuan moztu zuen. Mindegia moztu zu-

en bigarren enborra, berriaz, oinbikoa izan zen. Lan erdietan, Saralegi 48 segundo aitzinetik. Bigarren itzulian, Saralegi, bi minututik gorako tartea zuen baina Mindegia ekarritako enbor gogorra mozteko zeukan, eta hor aldeak laburtu ziren.

Mindegia ez zuen amore eman eta hamargarren enborrean, ikaragarri laburtu zuen denbora, 13 segundora jarritzea lortuz. Saralegi zu-



ARGAZKIA: LEGARRA

Mindegia eskuak altxatzen Saralegi irabazleari.

en aldeari eutsi eta azkeneko bi kana-erdikoetan tartea zabaldu zuen. Emaizarekin oso gustora agertu zen 22 urteko leitzarra «lan oso ona egin dugula uste dut. Garbi erakutsi dugu oso

ongi prestatuta etorri gara», adierazi zuen. Xabier Mindegia ere kontent zegoen emandako ikuskizunarekin: «Lehia estua ikusten genuen, eta horrela izan da. Biok lan ona egin dugu».

martxoak 28 - apirilak 18

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58**Kontzertuak**

ELIZONDO | 2013.04.13

Eskualdeko komunikabideen aldeko kontzertu handia

Anje Duhalde, Petti, Erramun Martikorena eta Joxe Angel eta Amaia Zubiria eta Edorta ariko dira Lur aretoan, eskualdeko komunibabideen alde.

Feriak

ELIZONDO | 2013.04.05

Aharia lehiaketa egingen da Udaberriko Feriaren baitan

Goizean azienda feria eta aharia lehiaketa, eskulangileak, txistulariak, dantzariak eta baztanzopak. Arratsaldean udaberriko birziklatze tailerra haurrendako.

Ospakizunak

SARA | 2013.04.01

Euskal Idazleen XXX. Biltzarra Bazko Astelehenean

Turismo Bulegoak 30. Euskal Herriko Idazleen Biltzarra antolatu du kiroldegian. Beti bezala, azken lanak idazleen eskutik ezagutzeko modua.

an. Sarrera librea eta doan. Tel.: 639 508688 (Rakel).

BERTIZ**Eva Irazokiren lanak jauregian**

Apirilaren 12ra bitarte ikusgai daude Eva Irazoki narbartearen margolanak Bertizko Natur Parkeko jauregian.

Emanaldiak**BERA****Pirritx, Porrotx eta Mari Motots-en azkena**

Apirilaren 13an Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoan *Sentitu, pentsatu, ekin!* ikuskizuna 17:00etan Eztegarra pilotalekuan. Sarrera: 7 euro. Antolatzailea: Labiaga ikastola.

Mus txapelketak**Eskualdeko komunikabideen alde****SUNBILLA**

Apirilaren 6an final handia jokatu da Ulibeltzak elkartearen, 16:00etan.

Dantzak**BERA****Escena jaialdia**

Apirilaren 6an Aizdanza konpainiaren *Suite Navarre* emanaldia 20:00etan Kultur Etxean.

Feriak**ELIZONDO****Primaberako Feria**

Apirilaren 5ean azienda feria Merkatu Plazan 10:00etatik aitzin. Aharia lehiaketa ere egingen da. Artisautza eta bertako produktuen feria Foruen Plazan, txistulariak, dantzariak, zopak... Atsaldetan, birziklatze tailerra haurrendako.

Kontzertuak**ELIZONDO****Eskualdeko komunikabideen aldeko kontzertua**

Apirilaren 13an Xa-loa, Xorroxin eta Ttipi-Ttaparen aldeko kontzertua izanen da Lur aretoan, 22:00etan hasita. Petti, Anje Duhalde, Erramun Martikorena eta Joxe Anjel, Amaia Zubiria eta Edorta. Sarrera: 10 euro. Laguntzailea: Lur.

ELBETE**Elizondoko****Abesbatzaren ahotsak**

Apirilaren 13an Elizondoko Abesbatzak ahots kontzertua eskainiko du 20:00etan elizan, Baztandarren Biltzarren antolatuta.

ELIZONDO**Anariren kantaldia**

Apirilaren 14an kantaldia eskainiko du Anarik 19:00etan Arizkunenean. Nafarroako Euskaltzaleon Topaguneak antolatuta, Cederna-Garalur eta Baztango Euskara Batzordearen laguntzarekin.

BERA**Musika gogor besta Kaxerman**

Apirilaren 6an Gaztetxean musika gogorra (21:30): Matutano (Bilbo), Alerta (Durango), Dama (Doneztebe) eta Eraso (Zarautz). Sarrera: 5 euro.

ZUBIETA**Maite Menet Ostatuan**

Martxoaren 29an Maite Menet kantautoreak kontzertua eskainiko du Herriko Ostatuan 22:00etan.

Erakusketak**IRURITA****Erdi Aroko musika tresnen kopiak**

Martxoaren 25etik apirilaren 1era Erdi Aroko musika tresnen kopiak erakusketa, Emilio Arias musikariluthierraren eskutik, Iruritako Jauregian, 18:00etatik 20:00etara. Martxoaren 29 eta 30ean erakustaldia zuzenean, 18:00etan eta 19:00etan. Dorrea Elkartek antolatuta, Baztandarren Biltzara-

rrako 50. urtemugako ekitaldian barnean.

Lore Jokoak erakusketa

Apirilaren 8tik 22ra 1879. urteko Elizondoko Lore Jokoetan irabazle izan zirenen poemak, Lore Jokoen afitxak... ikusgai Iruritako Jauregian.

OIZ**Iciar Mikelperizenaren lanak Martiornian**

Iciar Mikelperizenaren lanak ikusgai daude Martiornia landa etxe-

PROPOSAMENA**ESKUALDEA****Arkupeak elkartearen Gimnasia Eguna Beran**

Urte osoan gimnasia eta yoga egiten duten Arkupeak elkarteko ki-deek bere erakustaldia egingen dute apirilaren 4an, 12:00etatik aitzinera Berako Toki-Ona kiroldegian. Gimnasiari esker «zauli eta animoso» mantentzen direla aipatzen dute eta hori erakusten saiatuko dira berriz ere erretiratuak. Izerdialdiaren ondotik, Zubiondon bazkaltzera geldituko dira.



Solasaldiak

IRURITA

Lore Jokoei buruz

Apirilaren 12an *Bruno Etxenike*, Lore Jokoei solasaldia eskainiko du Rosa Miren Pagolak Iruritako Jaurerian 19:00etan. Doreea Elkarteak, Baztandarren Biltzarra eta Kultura Batzordeak antolatua.

ELIZONDO

Krisiari herritik buelta emanaz (II)

Apirilaren 18an *Otxandioko herri-olagarapen lokaleko esperientzia* eskainiko du Santi Uribe Otxandioko alkateak eta *Aramaioko Baserri Barri, nekazaritza, turismoa eta kultura* Ramon Ajuria Aramaioko alkateak, 19:30ean Arizkunenean. Sozio-ekonomia Herri Bilguneak antolatua.

BERA

Irache kontsumitzaile elkarteak

Apirilaren 18an *Argindarra, gasa eta telefonoa: konpainiak, kontrato motak eta fakturak* solasaldia eskainiko dute Iracheko teknikariek 18:00etan Beralandetan. Antolatzailea: Arkupeak.

Ospakizunak

SARA

Euskal idazleen XXX. Biltzarra

Apirilaren 1ean Euskal Idazleen Biltzarra antolatu du 30. aldiz Turismo Bulegoak kiroldegian.

BERA

Arkupeak elkartearen gimnasia eguna

Apirilaren 4an Toki Ona kiroldegian egingen dute gimnasia

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Alkasoroko Benta

MIKEL TABERNA

Susa, 2013

Lesaka eta Bera artean dago Alkasoro. Denetik saltzen da hango bentan, eskuinean baitauka denda eta ezker aldean taberna; beraz, handik igarotzen dira biztanle guztiak, oraintxe ez bada geroago. Bentako semea da Martin Irazoki, nobela honen kontalaria, 50eko hamarkada amaieran jaioa, gaztaroko hogeitaz berri emango diguna, eta gisa horretan herri oso baten erretratua. Gazteek mundu berri bat deskubrituko dute pixkanaka. Aurrena eskolara Irunera joandakoak, biluzizko aldizkariak erositakoan, lehen musuak ematean. Eta gero Iruñean, unibertsitatera iritsi orduko: grebak eta manifik, kontzientzia politikoa, ikurrina... 1975eko garaia lerdan bizi izan zituen belaunaldiaren kezka eta ibiliek kontatzen ditu nobelak, mundu zaharretik nola igarotzera doazen bestelako baterantz, baina zeinen trantze gordina suertatuko den, bidea urratzean bortizkeriarekin topo egingo baitute aurrez aurre.

Musika



3.SZN

SIROKA

Taupaka, 2013

Siroka musika taldea 2009ko udan sortu zen. Ezagunak ziren lagun batzuk bi abesti sortzeko intentzioarekin bildu ziren eta egindakoak sortarazitako haize boladak Siroka musika taldearen jaiotza ekarri zuen. Aurkezpen moduan *Haize berriak* diskoa karrikatu zuten urte horretan. 2011ko maiatzean *Karosi* diska liburu ikusgarria karrikatu zuten. 9 lehenetsun, 9 kantu eta 9 ipuin laburrez osatua. Urte eta erdi plazaz plaza bira luzea burutu zuten 2012ko abuzturarte. Hirugarren diskoa prestatzen hasi ziren, 3.szn, orain aurkeztu diguten diskoa. Sirokan rock-a da oinarria. Hitz guttitan, ahots melodikoa, erritmo dantzagarririk eta sinpletasuna. Euskal Herriko errealitatean kokatutakoak, bidegabekeriaren salaketak eta inposatutako sistemaren aldaketarako grinak gidatzen dute taldekideen ideologia. Gaur egun, zuzeneko aurkezpen bira prestatzen dihardute buru-belarri.

Internet



Dantzaren webgunea babesteko kanpaina

WWW.DANTZAN.COM

Dantzan.com-en sostengu-taldeak kanpaina berri bat jarri du abian. euskal dantzari buruzko webgune hau laguntzeko. Krisi ekonomikoak ekarri dituen murrizketak direla eta arazo larriak izan ditu Dantzan.com -ek eta iaz itxi egin behar izan zen webgunea. Laguntza kanpaina baten ondotik, duela hilabete batzuk Dantzan.com martxan jarri ahal izan bazen ere, honen jarraipena ez dago inolara ere ziurtatua eta webguneak bizirik jarraitzea nahi dutenek –erabiltzaileek, alegia...– dirua biltzeko ekimen berria abiarazi dute. Ahalegin honekin, diru iturri zuzenak eskuratzeaz gain, euren helburua da erakundeei erabiltzaile eta zaleon inplikazioa ikusaraztea. Bakoitzak ahal duen neurrian eman du laguntza. Borondatezko kuotak emateko aukera dago eta, horrez gain, badira beste hiru aukera ere.

erakustaldia Arkupeak elkarteak bazkideek, 12:00etan. Gero, bazkaria Zubiondon.

ELIZONDO

Kantu poteoa

Apirilaren 5ean Baztandarren Biltzarren 50. urteurreneko ekitaldien barnean, kantu poteoa 19:00etan Labaien ostatutik hasita.

LESAKA

Gazte Eguna

Apirilaren 13an antolatu dute. Egun osoan hainbat ekitaldi. Gauean, Dama, Afu, Anai Arrebak eta Bad Sound System taldeekin kontzertuak. Xehetasunak 22. orrian.

IGANTZI

Kantu Zaharren bazkaria

Apirilaren 6an antolatu du Udal Kultur Batzordeak, Baratzondo elkarteak, 14:00etan.

Zinema

DONEZTEBE

Zine emanaldia

Apirilaren 7an *Bazen behin baso bat* filma ikusgai 16:30ean eta *Sour surfer* 18:30ean zinemaz.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleak

Apirilaren 7an Elizondo-Hondarribia ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleak. (06:00)

Apirilaren 14an Baidorri (Urdotz)-Tutulialparla-Bastida-Urdotz ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleak (07:30)

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONOZ-MUGAIRI. Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milio pezeta/100.000 euro. ☎ 948 585036.

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BERA. Pisua salgai Berako herriko plazatik hurbil. 3 logela, 2 bainugela, balkoia, terraza eta trastelekuarekin. ☎ 653 018955.

NARBARTE. Pisua salgai bere 60 m²ko bajarekin. 3 logela, sukalde, egongela, bainugela, trasteroa eta terraza eguzkitsua. Prezio negoziagarria: 20 milioi pezeta/120.000 euro. ☎ 671 953370.

ORONOZ. Etxebizitza salgai. Dena berria. 5 logela, 3 bainugela, egongela, sukalde, trastelekua, eta portxearekin. Prezioa: 200.000 euro. ☎ 677 072437.

LESKA. Etxebizitza salgai. 4 logela, bainugela, egongela, sukalde eta terraza itxia. Gasarekin

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

prezio hagitza ona. ☎ 677 356461/☎ 628 936991.

ERATSUN. Hiru borda salgai, lur eremuarekin. ☎ 943 217817.

IGANTZI. 70 m²ko pisu berria salgai, 2 logela, bainugela, kalefakzioa, trastelekua eta marra garajea. Leku lasaia eta ikuspegi ederrak. Zatoz ikustera inongo konpromisorik gabe. Prezioa: 130.000 euro. ☎ 670 218613.

**ETXEBIZITZAK**
errentan emateko

LESKA. Bittiri kalean 90 metro²ko pisua errentan ematen da. Sukalde handia, egongela, 3 logela, komuna, trastele-

kua eta bi balkoi eder ditu. Bizitzera sartzeko prestatua dago. ☎ 636 11602/☎ 639 855284.

LESKA. 110 m²ko pisua errentan emateko edo salgai. Etxe osoak kanpora ematen du eta bi balkoi eder ditu. 3 logela, egongela, sukalde, komuna eta trasteleku handia. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎ 670 319380/☎ 607 769519.

ELGORRIAGA. Pisu mobleztatua eta berogailuarekin errentan ematen da. 3 logela, sukalde, komuna, egongela, balkoia eta trastelekua. ☎ 629 734263.

IRUN. Hiri erdian pisua errentan emateko edo saltzeko. 3 logela, bainugela, sukalde, egongela handi bat eta terraza irekia. ☎ 677 356461.

BERA. Herri erdian pisua errentan ematen da. Hiru logela, sukalde, 2 ko-

mun eta egongela ditu. Dena ekipatua eta bizitzeko prest. Igogailua eta berogailua ere baditu. Balkoi ederra eta eguzkitsua. ☎ 679 760510.

DONEZTEBE. Zazpigerutze karrikan 110 m²ko pisua errentan ematen da. Sukalde eta egongela mobleztatuta. 3 logela, 1 mobleztatuta, 2 bainugela, berogailua eta igogailuarekin. ☎ 615 756282.

LEITZA. Pisu bat errentan ematen da herri erdian. Igogailu eta guzti duena. ☎ 948 510591.

BERA. Pisu mobleztatua errentan ematen da. ☎ 697 322391.

LOKALAK/GARAJEAK

errentan emateko

LESKA. Bajera komertziala errentan ematen da Iturrunzubiko plazan. ☎ 948 637862/☎ 678 855056.

LANA

eskariak

Ostalaritzan lan egiteko gogoz, **sukaldean** zein **tabernan** esperientziadun mutil euskalduna. ☎ 622 208560.

Etxeko gazteenei asteburuetan **ingeleseko klaseak** emateko bere burua eskaintzen du unibertsitatean ingeles ikasketetako bigarren mailan dagoen 19 urteko neska. Honetaz gain, uztaile eta abuztuan umeak zaintzeko ere prest dago, interesatuek deitu ☎ 677 008290 zenbakira, arratsalde deitzea eskertuko luke.

Arkitekturako ikaslea asteburuetan DBH eta baitxilergo mailako **klase partikularrak** emateko prest dago. ☎ 680 187344

DONEZTEBE. Emakume euskalduna lanaldi osoan eskaintzen da, etxeko lanak, ostaluetan edo dendetan lan egiteko. ☎ 626 981768.

Emakumezkoa interna moduan eskaintzen da Bortziriki, Malerreka, Baztan, Urdazubi edo Zuggamurdi lan egiteko. ☎ 602 473794.

Autonomia eskaintzen da **elektrizista** lanak (partikular edo enpresentzat) egiteko. Prezio onean. ☎ 629 534928.

ELIZONDO, BAZTAN. Emakumezkoa eskaintzen da ordula lan egiteko. Harrikoa, plantxa, garbiketala lanak, pertsonak zaintzen... ☎ 603 640776.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Martxoaren 8tik 15era bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 57 € (+3,00)

Zerri gizena
1,377 € kilo. (+0,007)

Zerramak:
0,870€ Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,13

1.koa 3,87

2.koa 3,71

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,34

1.koa 4,06

2.koa 3,92

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 132,00 (-18,00)
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

urruxak 130,00

idixkoak 165,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,70/5,80

8-10 kilokoak: 4,60/5,30

Adineko jendea zaintzeko esperientzia duen gizonetako eskaintzen da. Berehalan lanean hasteko moduan. ☎631 418014.

LANA

eskaintzak

ZUGARRAMURDI.

Kattalin jatetxeak zerbitzari bat bilatzen du asetburuetan eta udako hilabeteetan lan egiteko. Frantsesa jakitea eta esperientzia izatea beharrezkoak dira. ☎948 599009/☎948 599146.

ANIMALIAK

salerosketak

Border Collie arrazako zakurkumea hartuko nuke. Arra. ☎618 779968. **Ahari muturgorria** salgai. ☎699 648538.

Aharia salgai. ☎948 510314.



ANIMALIAK

oparitzeko

3 hilabeteko **artzai txakurkumea** oparitzen da. ☎690 906004.



ETXALARCO UDALA

HERRIKO OSTATUAREN ERRENTAMENDUA

Udal honek lehiaketa irekirako deia egiten du *Herriko ostatu eta jatetxea* errentan emateko.

- **Errentamenduaren iraupena:** 3 urte, bertze 2 urtez luzaigarria.
- **Hileko errenta:** 365,00 euro + BEZA. Horixe izanen da hasierako prezioa.
- Lehiaketan baloratuko dira ustiapen proiektua eta eskaintza ekonomikoa.
- **Behin-behineko fidantza:** 600,00 euro.
- **Aurkeztu beharreko agiriak:** Baldintza pleguan adierazten direnak.
- **Proposamenak aurkezteko epea:** 2013/04/16ko 14:00 arte.
- Baldintza plegua interesatuen eskura dago Udaletxean eta udalaren web orrian (www.etxalar.org)

Etxalar, 2013ko martxoaren 12an
Alkatea, Miguel M^a Irigoien Sanzberro

ZERBITZUAK

denetarik

Emakume bat **euskara maila hobetu** eta **praktikatzeko** etxe batetara joanen litzateke. ☎618 417648

Ordenagailu, telefono mugikor edo argazki kamera digitala hondaturik? Ez bota. **Bildu** eta posible bada **konpon-**

duko ditut. Interesa dutenek ☎616 295420ra deitu edo idatz dezatela ebilketa@gmail.com helbidera.

DENETARIK

salerosketak

PIRRITX, PORROTX eta **MARIMOTOTX**. Apirilaren 13an Berako Eztegarra pilotalekuan 17:00etan "Sentitu, pentsatu, ekin"

SANTESTEBAN TAILERRAK
Laitzoko errep. DONEZTEBE T. 948 450 282 F. 948 450 857 doneztebe@red.renault.es

 0 KM MEGANE III DCI 110 CV 2013 urtekoa	 15.500€ GRAND ESPACE PRIVILEGE 2.0 DCI 175 CV - 7 plazakoa - 52.000 km
 8.900€ KANGOO II 1.5 DCI 70 CV 32.000 km	 MEGANE III DYNAMIQUE 1.5 DCI 110 CV - 21.000 km - 2011 urtekoa

emanaldia eskainiko dute. Sarrerak 7 eurotan salgai: Lesakan (Atxaspi), Igantzin (La Villa), Beran (Purienea), Arantzan (Aterpe), Etxalaren (Herriko), Elizondon (Fantxi-ke), Sunbillan (Iturburu), Sara (Herriko Ostatua) eta Donezteben (Kimetz).



SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/ ☎699 461394.

Komodoreko **egurrezko**

armairua eta **zentruko mahaia** salgai, biak oso egoera onean. 350 euro. ☎679 332358.



ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta harritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404


LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,37€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txeketa; 4) www.ttipi.net bitartez



Berako **LORENA PEREZEK** urteak beteko ditu apirilaren 10ean. Zorionak, besarkada haundi bat eta muxu pila familiaren partetik.



Zubietako **JULEN SANTESTEBAN BENDOIROK** 11 urte bete ditu martxoaren 12an. Zorionak familia guztiaren partez eta besarkada eta muxuak Karnele eta Endikaren partez. Aupa joaldun!!!



EDUARDO MIGELTORENAK urteak bete ditu. Zorionak!!! Etxekoan partetik, bereziki Aimar eta Ane! Prestatu kartera bazkari eder bat egiteko!!



Gazteluko **MIKEL TELLETXEA SARRATEAK** 6 urte beteko ditu martxoaren 26an. Muxu haundi bat famili guztiaren partetik batez ere zure anaia Josebaren partetik. Zorionak txapeldu!!!



Detroiten bizi den **MADDALEN** lesakarrak 4 urte beteko ditu martxoaren 21ean. Muxuuu handi bat, printzesa, Lesakako familiaren partez.



ENERITZ SALABERRIA NARBARTE martxoaren 22an 8 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat. *Gure alaba Eneritzen urtemuga dator, ezin in entzugar; zortzi urteko neska deus argia eta baikor, eskolan saiatzen da egunero gogor, pianoa jotzen ere artista horra hor, armonian segi zu polit eta jator.*



KEMEN GARRO ORDOKORAK 2 urte beteko ditu martxoaren 23an. Auniz urtez eta milaka muxu famili guztiaren partetik monono!



Arantzako **EUSEBIO GONZALEZEK** 77 urte bete ditu martxoaren 19an. Zorionak bere zazpi biloben partetik!



Martxoaren 24an **MARTXELEK** 13 urte bete ditu. Zorionak pottoko zure familiaren partetik.



Otsailaren 23an bete dituzue 50 urte elkarrekin. Zorionak eta eskerrik asko zuekin pasatu genuen egun ederragatik.



UXUEK urteak bete ditu martxoaren 13an. Berandu bada ere auniz urtez eta muxu handiak gure futbolariari, Nara, Garazi, Iker eta Ekaitzen partez.



Labaingo **ANE TELLETXEA ITURRALDEK** 11 urte bete ditu martxoaren 18an. Auniz urtez bihotz bihotz familiaren partez eta muxu haundi bat. Segi hain alai eta jator!!!!



Berako **ENAITZ IPARRAGIRREK** 4 urte beteko ditu martxoaren 31n. Auniz urtez familia eta bereziki Berako amatxiren partez. Muxu bat



Elizondoko **GARAZI SAROBE SANSINENAK** urteak bete ditu martxoaren 16an. Zorionak eta muxu pila bat familiaren partez, pottol pottoloena Janireren partetik eta ea merendu goxo goxia prestatzen diguzun!!




Narbarteko **IRAIA MARTIN ARGAINEK** bere lehenengo urtea bete du martxoaren 24an eta **AMATXI KONTXIK** apirilaren 8an 63 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partez, bereziki gure etxeko printzesari! Muxu potxola!



NAHIA ANSALAS ARBURUA etxalartarrak 5 urte beteko ditu martxoaren 31an. Ongi pasa zure urtebetetze egunean eta berendu goxo goxoa prestatu. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik!!



Aurtizko **EKINE MINDEGIAK** apirilaren 2an 15 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat famili guztiaren partetik eta bereziki zure iloba Leianeren partetik.



Saldisko **OINATZ EZKURRA** **IRAZOKIK** apirilaren 16an bi urte beteko ditu, zorionak familia guztiaren partez!!



UGAITZEK urtea beteko du apirilaren 3an. Segi orain bezain txintxoa izaten. Zorionak aita eta amatxoren partez. Muxu potolo bat



hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa www.ttipi.net en

argazki soila
4
EURO

aldizkarian interneten

argazki bikoitza
8
EURO

xorroxin, xaloa eta ttipi-ttaparen aldeko mus txapelketa

miesker zuen laguntzagatik!!

tokia	eguna	ordua
BAZTAN		
ERRATZU (Etxebertzeko Elkarte)	martxoak 28	21:30
IRURITA (Zibikoan)	martxoak 28	20:00
AMAIUR (Gaztelu Elkarte)	martxoak 30	21:30
ARIZKUN (Elkartasuna Elkarte)	martxoak 30	21:00

FINALA

Apirilaren 6an, 16:00etan
Sunbillako
Ulibeltzak elkarte



Antolatzaileak:
XORROXIN IRRATIA
XALOA TELEBISTA
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

BAT BIRAL:4U

EUSKAL
KULTURAREN
NAFARROAKO
ZIRKUITUA
2013

ANARI

Apirilak 14
19:00
Elizondoko
Kultur Etxea



RUPER ORDORIKA

Apirilak 20
22:00
Berako
Kultur Etxea



LINGUA NABAJORUM

Apirilak 26
22:00
Etxarri Aranazko
Kultur Etxea



POTTOLA

Maiatzak 4
20:00
Agoitzeko
Kultur Etxea



Antolatzailea





Babesle Nagusia





Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

Babesleak



Laguntzaileak



LUR DANTZALEKUAN
Elizondo

APIRILAK 13
LARUNBATA

22:00

EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN ALDEKO KONTZERTUA

10€

★ Petti ★
★ Anje Duhalde ★
★ Erramun Martikorena
eta Joxe Anjel ★
★ Amaia Zubiria eta Edorta ★



Anima zaitezte!!

antolatzaileak:
Berria | Ttipi-Ttapa Aldizkaria
Xaloa Telebista | Xorroxin Irratia
Baztango Euskalgintza

laguntzaileak:

